

6

Administrazio idazkiak

Nola prestatu auzo-koen bilera-deiak eta aktak

18

Gramatika

Deklinabidean sortu ohi diren zalantza batzuetarako irtenbideak

22

Giza baliabideak

Informazio gizar-tean bizitzea tokatu zaigu; prest al gaude erronkari aurre egiteko?

Antonio Rivera:
“Ezin larriagoa iruditzen zait gaur egun politikoen eta herritarren artean zabaldu den amildegia”



Oraingo honetan, Antonio Rivera, EHUko Gasteizko errektoreordea eta Historiako irakaslea, ekarri dugu orrialde hauetara. Urtebete joan da Estatu Batuetako atentatuak gertatu zirenetik, baina, haren ustez, gizakiok ez dugu hortik inolako ondoriorik atera; Euskal Herrian ere, egoerak txarrerako egin du, eta alderdi politikoez, tirabirak baretu beharrean, hor segitzen dute: abantaila eta etekin politikoa ateratzen eguneroko ezbeharrei. Antonio Riveraren iritziz, Unibertsitateak zeresan handia du elkar ulertze demokratikorako bide horretan: egiaren alde lan eginez, errealitatearekin zorroztzak izanez eta topaguneak bermatuz lortuko dugu amildegitik ateratzea.

10. or.

Euskal Autonomia Erkidegoa eta Europako Batasuna

Gure Erkidegoak Europako Batasunean ahotsa izateko eskatzen den honetan, hainbat datu interesgarri jakiteko aukera izan dugu, besteak beste: zein da EAEko egoera ekonomikoa Europako Batasunaren aldean? Ezagutzen dugu Europa? Eta europarrek ezagutzen gaituzte gu? Zein iritzi dute gutaz? Horretaz gain, erreportajearen osagarri, Marian Elorzarekin hitz egin dugu; Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Nazioarteratze-zuzendaria da, eta berak esan digunez, baiko-rrak izan gaitezke etorkizunari begira, gero eta gehiago baitira kanpora saltzen duten euskal enpresak.



13. or.

Eztabaida:
noraino heldu behar da langileen eguneroko jardunaren pribatutasuna?

Teknologia berriak sartzearekin batera langilearengan egiten den kontrola areagotu egin da. Langileak teknologia horien ahalmena ezagutzen ez duelako edota enpresetan langilearen mugak zein diren ondo zehaztuta ez daudelako, arazoak sortzen hasi dira langileen eta enpresarien artean. Langilearen arlo pribatuak muga non duen eta, arazoak sortuz gero, nola konpondu beharko lirartekeen galdetu diegu sei erakundetako ordezkari.

20. or.





PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Marrakial: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Aintzane Arrieta, Gari Berasaluz, Luis Elizondo, Estibalitz Ezkerra, Iñaki Freira, Aitor Gorostiza, J. K. Igerabide, Xabier Leibar, Jose Antonio Lekue, Joseba Lozano, Luma, Iñaki Martinez de Luna, Martintxo, Eneko Oregi, José Luis Padrón, Nerea Pikabea, Josemari Robles, Alvaro Salazar.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

Xabier USABIAGA:

“Orain ez dut bizitza lehiaketa moduan hartzen”

Gazterik hasi zen Xabier Usabiaga bizikleta gainean, baina hainbat esfortzu eta nekeren ostean lehen emaitza eztiak jasotzen hasi zenean, bihotz gaixotasun batek hainbeste maite zuen mundua uztera derrigortu zuen. Ez zuen amore eman, ordea. Komunikabideek ireki zioten atetik sartu eta gaur egun kazetari peto-pettoa bihurtu zaigu.



Argazkia: Ainhoa Aletza

Txirrindularitza aipatzen badizut, zer datorkizu gogora?

Batez ere oroitzapen onak, hura nire bizitzako unerik onenetariko bat izan zelako. Gaztaroa, bidaiak, lagun artea, ilusioak... Zeure bizitza izango dena eraikitzen hasten zara, eta, neurri batean, ametsak errealitate bihurtzen dira. Niri halaxe gertatu zitzaidan, baina tamalez bizikleta utzi behar izan nuen.

Erabaki hura hartzea zaila izango zen, ezta?

Oso gogorra. Bat bizikletan hasten denean bere amets gorena profesioalera heltzea da, hau da, bere hobby-a lanbide bihurtzea. Nik hura lortu nuen, egin beharreko esfortzu guztiak egin eta gero. Baina hirugarren urtean gaixotasun hori sortu eta bertan behera utzi behar izan nuen dena. Gaztea nintzen eta bizikletan hain murgilduta ibiltzeak beste irtenbide batzuk bazterrean uztera eraman ninduen. Nire aukera ia-ia bakarra bizikleta zen. Horregatik oso une latza izan zen, ez bainekien norantz jo. **Lehen, tropel barruan, eta orain tropeletik kanpo, baina txirrindularitza gertu jarraitzen duzu. Zer moduz moldatzen zara kazetari lanean?**

Hasiera batean erdi txantxetan hartu nuen, ez bainuen ikusten nire burua kazetaritza bizi bitzen. Baina oso aukera ona izan zen, horretaz ez dut inongo zalantzarik. Txirrindularitzarekin loturaren bat izateak, haren inguruan jarraitzeak, lagunekin harremanetan jarraitzeak, eta nolabait nire mundua izan zenari begira egoteak une latzak errazago eramaten lagundu zidan. Ez nuen pentsatzen horrek asko iraungo zuenik, baina nik neuk jorratu nezakeen bidea zela ikusi nuenez, hasiera batean txantxa moduan hasi zena behin betiko finkatu da, edo, orain arte behintzat, finkatu samarra dirudi.

Azkenaldian komunikabideak txirrindularitza ematen ari diren irudia ez da baikorra.

Badirudi halako kontu ilunak azaleratzeak batzuei poza ematen diela. Txirrindularitza irudiari esker bizi da, eta, berez, oso irudi ona dauka. Azken finean, gizonak bere esfortzu eta

bere eginahalarekin mugak hautsi eta aurkariak mendean hartzen ditu. Baina, aldi berean, dopinaren kontua txirrindularitza saldu nahi den irudiaren kontra doa, eta horregatik etxe babesleek pixka bat izkin egiten diote txirrindularitzari. Dena den, hauek boladak dira, txirrindulariek iragan behar izaten dituzten ibilbideak bezalakoak: gorabeheratsuak. Egin behar dena da agintariei erantzukizuna eskatu eta irtenbide egokiak topatu, txirrindularitza egoera honetatik lehenbailehen atera dadin.

Txirrindulari gazte bati emango zeniokeen gomendioa?

Txirrindularitza ederra dela esango nioke, nahiz eta komunikabideetan azaltzen den bezain polita ez den. Oso kirol gogorra da, azken finean, norberaren dohain fisiko eta psikologikoetatik atera behar da etekina. Sufrimendu handia pairatu beharra dago, eta arrakasta lortu ahal izateko oso bide latzak jorratu behar izaten dira. Azken hori ez da beti posible izaten, horregatik, lehenbizikoa aholkua zera litzateke: gaztetan txirrindularitzara soilik ez mugatzeko, beste aukera batzuk ere jorratu ditzala. Gero errepideak edo bizitzak erakusten badio txirrindularitzan aukera onak dituela, hor bertan erabat murgiltzeko gomendatzen diot.

Bizitzako zein etapa garatzen zaio Xabier Usabiagari irabazteko?

Orain ez dut bizitza lehiaketa moduan hartzen, nahiz eta gaztetatik kirolean murgilduta ibili garenok lehia barneratuta izaten dugun. Bizitzako atal asko falta zaizkit bai ezagutzeko bai bizitzeko eta datorrena besoak zabalik jasoko dut. Uste dut moldaeraza naizela, datorrena baikortasunik handienarekin hartzen dut, egoerei beti aurpegi alai jartzen saiatzen naiz, haietatik ahalik eta ondoriorik baikorrenak ateratzen ahalegintzen naiz. Oraindik gauza on asko ditut bizitzeko eta beharbada bizitzeko garairik onenak heltzeko daude.

Estibalitz Ezkerra
Kazetaria

Enbutuak eta galbaheak

Ondo funtzionatu nahi horretan, gure administrazioan, gero eta gehiago dira galbahe edo enbutu lana egiten duten langileak. Beraingana heltzen den oro ondo miatu, (goitik behera, atzetik aurrera) eta euren ustetan onargarria dena beraien hariarte estutik pasatzen lagatzen dute. Ez bada horrela aldiz, ohe elastikoaren lana egin eta etorri den bidetik itzularaztea da irtenbidea. Hara! Egin dute euren lana! Hariarte malgu samarra ote den susmatuz gero konponbidea samurra da; hariarte estuagoa duen bigarren galbahea antolatu eta listo! Berau gutxitxo gertatuko balitz hirugarrena, laugarrena... Hau bai asmakizuna! Horrela bai lortuko dugu amestutako perfekzioa: enbutu ederra, alajaina! Irtenbidea: baten lekuan bi langile jarri eta listo! Ah! Hori bai, zenbat eta estuagoa den hariarte orduan eta lan finagoa noski, eta nola ez, langile horri maila jaso beharko zaio.

Bitartean, “koittadu” gutxi batzuek hainbat programa aurrera ateratu nahi dituzte. Helburu argia: administratuari dagokion zerbitzua ahalik eta era azkarrean, erosoenean eta eraginkorrean eskaintzea. Baina hau nori inporta zaio? Hona hemen ibilbidea: galbahe bat pasa duzu, ondo zoaz, zorionak! Bigarrenarekin topo, heu konpondu! Hirugarrenean atzera, ekin berriro!... Dagoeneko administratua urduri jartzen hasia da, sufritzen eta amorratzen hasten da; halako batean zeharo haserre deitzen dio “koittaduari” (sekula ez “galbaheari” edota “enbutuari”).

Beronek (bere ogibideak eta deboziozko lanak eskatzen dion lez) administratuari zor zaion errespetuarekin entzun, lasaitu eta erantzuten dio.

Lan jarduna amaitu da, “enbutua” eta “galbahea” badoaz etxera, egindako lanak ematen dien harrotasunarekin eta autoestimuairekin. Bitartean “koittadua” bertan geratzen da galbahetik itzulitako konpontze lanetan.

Administratuari eragozpenak jartzea, bere lanak tratatzea, atzeratzea, erantzun txarra ematea, erraztasunik eta laguntasunik ez eskaintzea ez dugu gaur ontzat ematen administrazio moderno honetan. Baina, ez al dugu hori bera egiten batzuek besteekin administrazioaren barnean? Ez ote litzateke egokiago galbahe gune horiek prozedurari azkartasuna eta abiadura ematen dioten atzerabiderik ez duten balbulak bihurtzea? Edo elementu hauek erdibidean baino, abiapuntuan kokatuko bagenitu programetan benetan inplikatur?

Non kokatu duzu irakurle/lankide zeure burua? Zer sentitu zara “koittadu”, “galbahe” edo “enbutu”? Agian “ontza”? Badaude begi handi handiekin inguruan gertatzen dena ikusten dutenak txintik esan eta egin gabe. Agian “prailea”? Horrelakoek datuak eta txostenak behin eta berriro eskatzen dituzte. Baina, hauetaz hobe beste egun batean jardutea.

Iñaki Artola Zubillaga

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahaliko du sail honetan bertan.

Xori erresinula udan kantari

Bakarrik utzi naute abuztu osorako, bulegoa zaintzen: egunero bost bider begiratu behar dut posta elektronikoa, ea presazko mezuren bat iristen ote den. Telefonoak ere jo dezake, baina, badaramat astebete, eta ez du behin bakarrik ere jo. Mezuak bai, egunero iristen dira batzu-batzuk, baina presazkorik batere ez oraindik. Egunero iristen da txori hori ere leiho ertzero. Beti txori berbera dela esango nuke. Eta hortxe egoten da kantari: “Xori erresinula udan da kantari, zeren ordian beiti kanpua janari”.

Ez da urretxindorra, nik uste. Ornitologian ez naiz batere aditua, baina urretxindorra ez dela esango nuke; umetan kaxkabeltxa deitzen genion txori txiki horietakoa da, inondik ere. Beti txori berbera da, beti leku berera etortzen da, beti kantu berbera egiten du. Ez ote da aspertzen? Ni ere beti txori berbera naiz, beti leku berera etortzen naiz eta beti kontu berberak izaten ditut zain. Ni bai, ni zeharo aspertzen naiz. Erabat aspertzen naiz. Hementxe egoten naiz, noizean behin ordenadorean posta elektronikoa begiratu, aulkian eserita, leihora begira, kaxkabeltx aspergarri horri begira, ezer egin gabe. Ez naiz irakurzale, musikak nazka ematen dit, irratia ez dut agoantatzen (gutxienez tourra balego, baina hori ere amaitu zen), marraztea ez dut gogoko, are gutxiago idaztea. Pentsa: gogoeta hauek ere idazle bati utzi dizkiot idatz ditzan.

Batzuetan, Florita eserita egoten den lekuan jartzen naiz. Horrek suspertzen nau pittin bat. Florita beti gona laburrekin ibiltzen da, uda eta negu. Neguan galtzerdi beltz hordigarriekin. Udan, azal huts. Ama! Berotasuna hemendixe sumatzen diot. Atzo, Floritaren aulkian eseri nintzen, berotasun batek hartu ninduen, eta idiarena jotzen hasi nintzen. Baina, hutsa: angulazioak behera egin zuen berehala; leku honek infernuko sua ere itzaliko luke. Igual aire girotuagatik izango da. Gero, pentsatzen egon nintzen: egoera hartan nengoela, atezaina mandatu batekin-edo agertu balitz, zer? Lehendik ere ospea behe samarrean daukat hemen, eta...; ez dut pentsatu ere egin nahi. Atezain hori den kontakatiluarekin, gainera!

Ez dakit gauza izango ote naizen abuztu osoa ez egitekoren bat egin gabe irauteko. Batzuetan, urduritasun bat jabetzen da nitaz, eta zerbait egiteko gogoari ezin diot eutsi. Eskerrak ez dakidan zer egin dezakedan, oraindik. Komunean egonaldi luzeak egiten ditut. Berez, kaka-luze samarra izaki, eta, gainera, zeharo biluztea gustatzen zait neure lanak egiteko. Gero, papera uretan busti eta ondo-ondo garbitzen naiz. Bide batez, galtzarbeak ere garbitzen ditut, izerbera bainaiz eta usaina izaten baitut alde horretan. Garbiketak amaiturik, ispiluaurrean imintzioka aritzeko joerak eman dit azken aldi honetan. Hortxe, biluzik, ispiluaurrean imintzioka. Aurpegiarekin keinu mota asko egiteko abildadea dut txikitandik, eta gorputzarekin ere bai. Nik uste, pailazo izateko jaio nintzela. Hala ere, ezin dut jasan pailazoek sudurraren puntan ipintzen duten bolatxo hori, ezin dut jasan aurpegia tindatzea edo mozorroak janzea. Nik, pailazoarena egiteko-

tan, biluzik egin nahiko nuke. Baina ez dut uste ausartuko nintzatekeenik. Behin, hondartza nudista batera joan nintzen, eta ez nintzen arropa kentzeko gauza izan; alde batetik, neure hura kaxkarregia iruditzen zitzaidan –lotsak are kaxkartuago–, beste astazakil haien parean erakusteko; bestetik, atzea ere inoren bistan uztea deserosoa iruditzen zitzaidan, babes falta izugarria sentitu bainuen. Hemendik ondo entzuten dira emakumeen komunetako hotsak; pixa egitean ateratzen dutena, puzkerrak. Neu barruan nagoela norbait sartzen sentitzen badut, eusten egoten naiz hura irteten arte. Ez dut nire hotsak inork aditzerik nahi.

Floritaren eta Margaren arteko elkarrizketa hura ere hemendixe entzun nuen.

Belarria paretaren kontra ipinita, ederki entzuten da beste aldekoa. Florita depresioaren kontrako pilulak hartzen ari da. Orduan jakin nuen. Florita bakarrik bizi da, Floritak hiru nobio izan ditu, eta hirurek oso gutxi iraun diote. Orduan jakin nuen. Floritak gizon batekin harreman luze bat izan nahi du, umeak ekarri, etxe bat erosi; jode, berak ez ote dauka, bada, besteek eskain dezaketena? Orduan jakin nuen. Eta nik neure artean; bai, badaukazu. Ni zure aulkian eserita zorabiatu egiten naiz, eta suak hartzen nau, eta ia-ia idiarena ere jo nuen gaur. Eta umeak ere egingo nizkizuke, eta uste dut normalak irtengo lirakeela; ez dute zertan aitaren aldeira irten.

Hori guztia esango nizuke, Florita, baina ez naiz gauza. Gogoeta hauek ere idazle batek ipini behar izan du nire orde. Eta, gainera, zuk ez didazu batere begiratzen. Zuk gizon batekin harreman luzea nahi duzu, baina ez didazu begiratzen. Badakit hozki ikaragarria eman nizula lo harripatu ninduzun egun hartan. Ni lo nengoan, ukondoa mahai gainean, esku batez begi bat estalita. Zuk hitz egin zenidan, beste begia zabalik ikusten zenidalako. Baina nik ez zintudan ikusten, ez nizun erantzuten. Berrito hitz egin zenidan, baina nik sakon egiten dut lo. Eta izutu egin zinen, eta beste laguntza eskatu zenien. Eta hor zeundeten denok niri begira, esnatu nintzenez. Eta zer gertatzen da galdetu nizuen, eta burutik oso ondo ez banengo bezala begiratu zenidaten, zuen aurrean joanda edo edanda, –inor ikusi gabe tinko begira– egon izan banintz bezala begiratu zenidaten. Eta geroztik ez didazu begiratu aurpegira. Eta nik ez dizuet esan, ez diot esan inori, eta ez diot esango, zabalik neukan begi hura kristalezkoa dudala, begibakarra naizela, beti aurrez begiratzen dudala, eta beste begia ere ez dudala ia mugitzen, inor konturatu ez dadin.

Hara. Joan da kaxkabeltxa bihar arte.

J. K. Igerabide
Idazlea



Auzokideen bilerak: nola egin horietarako deiak eta aktak?

Etxe baten jabe den orok badaki noiz edo noiz tokatu behar zaiola komunitateko lehendakari edo idazkari izatea eta horrek dakarren guztia: ataria pintatu behar dela, teilatua konpondu... Horiek guztiak zelan egin erabakitzeko auzokideen bileraz baliatzen gara, eta horrek bilera-deiak eta aktak egin beharra eskatzen du.

Bilera horien osaketa, prozedurak, e.a. araututa daude¹. Gure asmoa, baina, ez da Legea aztertzea, baizik eta aholku txiki batzuk ematea idazki bi hauek egin behar dituen horri, ezen, auzokide asko euskaldunak diren kasuetan ere, idazkiok –eta bilerok– gaztelania hutsean egiteko ohitura daukagu. Baina noizbait hasi beharko ohitura txarrak aldatzen, ezta? Tira, bada, goazen ikustera zelan egin era honetako idazkiak euskaraz.

Horretarako, balizko egoera bat ekarriko dugu: jabekideen komunitate baten igogailu berria jarri nahi da.

Hona bada, gure aholkuak:

Bilera-deia

Bilera-deia egiterakoan, ondoko hauek jakinarazi behar zaizkio jabekide guztiei, besteak beste; bilera non, noiz eta zein ordutan izango den eta zeintzuk diren aztergaiak. Eginkizun horretarako bi bide erabili ohi dira: gutuna edota atarian/postontzian utzitako iragarkia.

Oro har, hau da bilera-deia egiteko erabili ohi den modua:

Urriaren 20an arratsaldeko 20:00etan (zortzietan) atarian egingo dugun bilerara etor zaitezten deitzen dizut. Hauek dira bilerarako aztergaiak: igogailu berria jarri edo ez, ordaindu beharreko kuoten igotzea eta teilatua konponketa.

Aurreko adibidea ulergarria bada ere, gure ustez argia, laburra eta erabilgarria ondoko hau da:

Ikusten duzunez, lehenengo eta behin bileraren berri eman (izenburuan) eta honen inguruko sarreratxo bat egin dugu, eta geroago azaldu bilera non, noiz eta zein ordutan egingo den. Aztergaiak jartzeko hurrenkera logiko bat jarraitu dugu eta zerbaki bidez bereizita. Aztergaien zerrenda egitean aditz nominalizatua erabili dugu *-t(z)ea*, homogeneousun hau baita, gure ustez, biderik egokiena.

Datu hauetaz gain, bestelako argibideak ere eman daitezke, hala nola: nork eskatu duen bilera (arazoren bat egon delako-edo), bileraren gutxi gorabeherako iraupena...

Akta

Bileran esandakoak eta hartutako erabakiak aktan jasotzen ditugu. Era honetako akta batek ondoko osagaiak izan behar ditu:

- ▶ Izenburua: oso baliagarria egingo zaigu, akta zein bilerari buruzkoa den erraz identifikatzeko.
- ▶ Nork deitzen duen: lehendakariak, idazkariak, edota, hala gertatuz gero, bilerara deitu duten auzokideen izen-abizenak.
- ▶ Bilera, ohikoa edo ez-ohikoa den.
- ▶ Lehenengo, bigarren... deialdia den.
- ▶ Bilera-eguna, ordua eta tokia.
- ▶ Bertaratutako guztien izen-abizenak.
- ▶ Bileraren aztergaiak: atal honetan, bilera-deian alde zuzenik ezagutarazi eta bileran bertan hurrenkera logiko baten arabera aztertzen diren gaien zerrenda bilduko dugu, gai bakoitzaren aurrean zerbaki bat jarrita. Zerbaki horiek lagungarri gertatuko zaizkigu bileran eztabaidatutako gaiei banan-banan sarrera emateko eta bileran hartutako erabakiak gai horien hurrenkera berean jaso ahal izateko.

BILERA-DEIA

Honen bidez dei egiten dizuet gure atariko bilera honetara.

Eguna: 2002-10-17 (osteguna)

Ordua: 20:00

Tokia: ataria

Aztergaiak:

- 1.- Igogailu berria jartzea.
- 2.- Kuotak igotzea.
- 3.- Teilatua konpontzea.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Gaien garrantzia ikusita, guztiak egotea komeni da.

¹ Jabetza Horizontalaren Legea (JHL) 49/1960, uztailaren 21ekoa. Eta 8/1999 Legea, apirilaren 9koa. Azken honek zati baten moldatzen du aurrekoa.

- ▶▶ Esan-eginak eta erabakiak: hau da aktaren zatirik inportanteena. Akta funtzionala izan behar da, eta horretarako, ez da zertan hitzez hitz edo estilo zuzenean jaso behar bileran esandako guztia, hau ez baita Legebiltzarreko bilera-akta bat. Horretarako, egokiena da bileran esandako informazio interesgarriena aukeratu eta kontakizun modura idaztea, hau da, lastoa eta alea bereizi behar dugu.
- ▶▶ Erabakiak oso garrantzitsuak badira, eta botazio bidez erabakitzen badira, nahi izanez gero, alde zein kontrako botoa eman dutenen izen-abizenak zein botorik ez dutenen bertarutakoena jarriko ditugu.
- ▶▶ Amaiera: era honetako esaldi batekin egin ahal da:
 Besterik gabe, bilera amaitutzat eman dugu.
 Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.

- ▶▶ Toki-egunak: akta egin den eguneko jaso behar dugu.
- ▶▶ Izenpea: lehendakaria eta idazkariaren sinadurak, gutxienez. Dena den, eta gaizki ulertzerik egon ez dadin, egokiena da bilera bukatu ondoren bertaratu diren guztiek sinatzea.
- ▶▶ Eranskinak. Bilerarekin zerikusia duen informazio gehigarri guztia eranskinetan ematea komeni da, testua gehiegi karga ez dadin. Eranskinen bat eginez gero, lagungarri izango zaigu aktaren testuan hauen erreferentzia egitea.

Bilera-akta bilera bukatu ondoren itxi behar dugu, edo bestela, handik hamar egunera, lehendakaria eta idazkariaren sinaduraren batera. Akta garbira pasa eta honen kopia bana helaraziko zaie auzokideei, edo bestela iragarki taulan jarriko.

Hona balizko akta baten adibidea:

BILERA-AKTA

Nork deitua: idazkaria
Bilera mota: ez-ohikoa
Bilera zenbakia: lehena
Eguna: 2002-12-17 (osteguna)
Ordua: 20:00
Tokia: ataria

BERTARATUAK:

Maribi Garitaonandia, lehendakaria; Maitena Roldan;
; Belen Lekue, idazkaria.

AZTERGAIK:

- 1.- Aurreko bilerako akta onartzea.
- 2.- Igogailu berria jartzea.
- 3.- Kuotak igotzea.
- 4.- Teilatua konpontzea.
- 5.- Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- Akta onartzea

Lehendakariak bilerari hasiera eman dio, idazkariari aurreko bilerako akta irakurtzeko eskatuta.

Erabakia: Batzordekideek aho batez onartu dute aurreko bilerako akta.

2.- Igogailu berria jartzea

Idazkariak igogailu berria jartzeko jasotako aurrekontuen berri eman die batzordekideei.

Erabakia: Aurrekontu guztiak komentatu eta eztabaidatu dira, eta ondoren, *Eraikin* enpresak aurkeztutakoa onartu da.

3.- Kuotak ordaintzea

Idazkariak igogailu berria jartzeko ordaindu beharreko kuotak eta epeak aurkeztu ditu.

Erabakia: Idazkariak kuotak %30 igotzea proposatu du eta auzokide guztiek onartu egin dute, bik izan ezik: 4.A pisukoak eta 1.B pisukoak. Hauek esan dute ez dutela igogailurik behar eta horregatik ez dutela ordainduko.

Honen aurrean lehendakariak proposatu du auzokide bi hauek orain arteko kuota ordaintzen jarraitzea, baina igogailua erabiltzeko giltza jartzea. Bi proposamenak onartu dira. Ondorioz, kuotak %30 igotzea eta igogailuari giltza jartzea erabaki da.

[...]

Amaiera: Bilera amaituta agiri hau egiten dut eztabaidatu eta erabaki duguna jasotzeko.

Gasteiz, 2002ko urriaren 20a



BELEN LEKUE
Idazkaria

Euskara eta Kirola

Kirola gizarteko adin-talde guztietara zabaldu da azken hamarkadotan; gainera, kirola egiteko era ezberdinak gizarteratu dira han-hor-hemen, heziketatik hasi eta goi-errendimenduko lehiaketara heldu arte, ondo pasatzea edo osasuna zaintzea bilatzen duten jarduerak ahaztu barik. Eta jarduera bakoitzak bere mintzamoldeak ezarri ditu: han, argota; hor, jendarteko hizkera; hemen, teknolektoa. Eta euskaraz? Bada, hemen ere, gizartearen gainerako arloetan bezala, oztopolasterketan gogor, aurrekoek ezarritako marka ondu nahian, sasoiari irauteak nahikoa esfortzurik eskatuko ez balio bezala, gutxien espero denean mina hartu eta hara, berriz bizkortzera!

Hainbat proba, zelai eta kantxa ezagutu ditu euskarak eta guztietan erakutsi behar izan ditu bere trebetasunak.

Euskarak azken hamarkadatan ezarri dituen marketako batzuk aipatu nahi genituzke artikulutxo honetan, asko eta asko, honen luze-zabalaren menpeko, “ahaztu” egingo ditudan arren.

Lehen marka: hiztegi gintza

Beharbada, nonbaitetik hasi behar eta, Jose Angel Iribarri agur esateko orduan egindako partidatik atera ziren diruei esker argitaratuko liburua, bera izan baitzen hasierako urteotan komunikabideok eta kirol-arloan genbiltzanok izan genuen marka bakarra, guztiok ondu nahi genuena.

Eta ondu ere ondu egin genuela esango nuke. Izan ere, aipaturiko hiztegia mahai gainean egin ziren lehendabiziko artikuluetatik, zabaldu ziren aurreneko kirol-albisteetatik, idatzi ziren lehen eskola-testuetatik gaur arte asko hobetu dugu gure hiztegia, bai eta gure fraseologia ere, gaur egun kirola eta heziketa fisikoari buruzko mintzamoldea hitzek eta esamoldeek osatzen baitute: lekutan dago “baloia langara bota du” horrek zur eta lur utzi gintuzten garaioak!

Lehendabiziko hiztegi haren atzetik beste batzuk etorri dira. Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak (SHEE/IVEF), UZEIrekin elkarlanean, lau kirol-hiztegi argitaratu zituen joan den mendearan amaieran: pilota, futbola, atletismoa eta txirrindularitza. Baina, beste askotan bezala, probaren gogorak eraginda, ziur asko, txahaldia sentitu (edo bidean ezkatututako kristal-puska batek gurpila zulatu) eta hortxe laga behar izan genuen denboraldi hartako desfioa.

Nola edo hala, ez nahi bezala, segitu dugu entrenatzen eta noizean behin, era ez oso txukunean bada ere, plazara irteten ere ausartu gara, izandako ahulaldi horretatik zelan bizkortzen ari ginen erakusteko. Horra hor, berbarako, SHEE/IVEFeko itzultzaileek eta ikasle bekadunek jaso, sortu, egokitu eta landutako 12.800 hitzeko zerrenda, erakundearen web orrian edonork kontsulta dezakeena. Egunen batean lantalde baten aztergai izango ahal dira!

Bigarren marka: irakaskuntza

SHEE/IVEF aipatuta, hezkuntzaren kantxan sartzeko garaia heldu zaigula begitانتzen zaigu. 1986-87 ikasturtean sortutako erakunde honek heziketa fisikoari buruzko kalitatezko irakaskuntza ematea du helburu. Bost urteko karrera honek, batez ere entrenamenduari eta kirolei lotzen bazaie ere, badu medikuntzarekin, psikologiarekin, soziologia, didaktikarekin,... lotutako espazio bat ere. Duela gutxi, indarrean ipini du bere ikasketa-plan berria eta harekin batera bertan irakasten diren gai gehienak euskaraz ere ikasteko aukera eman beharko lukeen beste plan bat. Hona bigarren honen aurreneko helburua: unibertsitateko irakasgai ardatzak eta derri gorrezkoak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera, arian-arian; baita aukerako ikasgaien %50 ere.

Bestalderetik, Gasteizko Irakasle Eskolako heziketa fisikoko arloak ere hainbat ikasgai eskaintzen ditu euskaraz.

Deba Garaiko udalerriaren mankomunitateak, bakarrik hasieran eta Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren laguntzarekin gero, hainbat lan plazaratu ditu beken bidez, hala nola heziketa fisikoaren oinarri morfofuntzionalak, federazio-tituluen lehen mailak eta kirol-entrenamenduari loturiko fitxak eta liburuak. Udan hainbat ikastaro, hitzaldi, mahainguru eta abar antolatu dira *Kirola Euskaraz* ekimenaren barruan.

Aurrekoaren osagarri, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritza *Gure Kirolak* izeneko liburu-bilduma plazaratzen ari da, Kirolaren Euskal Legean bereziki aipatzen diren kirolen gainean: euskal pilota, arrauna eta euskal kirol tradizionalak.

Gelditzen dira, hala ere, oraindik zabaldu ez diren atatak: federazioek ematen dituzten kirol-titulazioak, egun aldatzen eta homogeneizatzen ari direla kontuan hartuta, aukera ona litzateke hor ere euskarari atea zabaltzeko.





Hirugarren marka: osasuna eta aisialdia

Lehiaketatik edo hezkuntzatik kanpo, osasun-helburuak dituzten jardueretan, medikuntzako hiztegiara jo behar da hizkera teknikoa elikatzeko; eta beste horrenbeste jasotzen da (jazo behar-ko litzateke) patologia kronikoak artatzeko terapietan geroz eta gehiago erabiltzen ari den heziketa fisikoko jardueretan.

Euskarak arlo honetan izan duen tradizioz ezari beste oztopo bat gehitu behar diogu: definizio eta kontzeptu batzuen zehaztasun falta. Izan ere, kirola eta heziketa fisikoari buruzko eskolek termino desberdinak erabiltzen dituzte kontzeptu berberak edo oso berdintsuak adierazteko; gainera, zientzia-arloko kontzeptuok, praktikak eta terminoak esparru anglosaxoian sortu eta gaztelaniaren bidez heltzen zaizkigulako.

Laugarrena: ondu gabeko marka

Bada, bestalde, hizkuntzatik kanpoko beste arazo bat, gure barnean iltzaturik daramaguna: gure inguruko hizkuntzetan hitz polisemikoak erabiltzen ditugu sarri askotan; euskaraz, aldiz, ez gara beti ausartzen, erabilera arrunteko esanahitik aldentzeko ezinean gabiltza. Gauzak konkretatu eta zehaztu nahi horren menpeko, guretzat guztiz ohikoa den mailegua nahiago euskarazko terminoa baino (nahiz eta hori askotan ere erdararen kalko bat baino ez da izango). Nahiago “koltxoneta”, “lastaira” edo “lastamarraga” baino; nahiago “mariposa estiloa”, “tximeleta” baino; nahiago... Gogoan dugu, esaterako, garai batean metabolismo-aldaketa bat adierazteko, esfortzua intensitate eman- go digun kontzeptua adierazteko, izan genituen zalantzak. Zelan esan behar genuen “umbral anaeróbico”. Hiztegi arruntetik hartutako hitza erabiltzen dute gure inguruko hizkuntzok: umbral/ seuil / soglia / treshold. Euskaraz, gehien erabiltzen diren hiztegiei kasu egitera, “alartze”, “atalase” edo “atezubi” erabili beharko genuke. Ez ginen ausartu, arruntegiak iruditzen zitzaizkigulako, eguneroko mintzamoldearen oihartzuna ekartzen zigutelako. Ausartu ez, hiztegiaren bilatu eta “harlax” topatu genuen. Hark bai, harka balio zuen, aski ezezaguna baitzen, oihartzunik gabekoa. Hura hartu genuen, baina, nolana ere, hark ere porrot egin eta “unbral” ikusi eta entzuten dugu nonahi.

Xabier Leibar Mendarte
Jose Antonio Lekue Gallano
Iñaki Frieria Urbistondo



Antonio RIVERA:

“Ajuria Eneako egoerara bueltatzearekin bat nator, ezinbestekoa baita gizartearen gehiengoa elkarrengana biltzea”

Tomás Alfaro Fournier kronikagile gasteiztarrak utzitako lanaren eta ondare intelektualaren jarraitzailea da Antonio Rivera. Errektoreordea Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen duen Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean, Antonio Rivera Historia Garaikideko irakaslea da eta *La conciencia histórica de una ciudad: el “vitorianismo”* eta *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad interior (Vitoria, 1876-1936)* liburuak idatzi ditu. Kulturako hainbat egitasmotan sartua –*Ikusager*, kasu–, Antonio Riverak historia-ri eta unibertsitateari buruzko gogoeta batzuk ekarri ditu orrialde hauetara.

Urtebete joan da New Yorkeko dorre bikietan eta Washingtongo Pentagonoan atentatuak izan zirela. Egina izango duzu I-11 hartatik hona gogoeta bat baino gehiago.

Atentatuak baino lehen, joa zuen begiz administrazio estatu-batuarrak Afganistango eremua, toki hori estrategikoa baita, batez ere, sobietar inperioak lur horietatik alde egin behar izan zuenetik. Orain hor dira lehian estatu-batuarrak, Azerbaijan eta Uzbekistan sobietar errepublika ohiak, baina baita Iran eta Irak ere (oso kontuan hartzeko biak). Zergatik lehian? Hor petrolioaren eta gasaren garraiorako bideak joan daudelako.

Tristatu egiten naiz batetik, ikusten dudalako ez dugula ondoriorik atera, irailaren 11ko atentatutik urtebetera; eta, bestetik, egiaztatu dudalako historiako klasean irakasten zizkiguten arrazoi ekonomikoek gaurkotasuna daukatela. Azken batean, bi hauek sortzen didate egonezina: agerian da gizakiok ez garela gai akatsetatik ikasteko, eta bestalde, potentzia ekonomikoak temati ari dira beren asmoak herritarren gainetik eta bizitzaren beraren gainetik jartzeko orduan.

Ezin uka ere, honek guztiak milaka eta milaka lagun batu dituela globalizazioaren, gerraren edota giza eskubideak haustearren kontra. Etorriko al da aldaketarik herri mugimendu horiei esker?

Mugimendu horiek I-11 baino lehen ari ziren lanean, eta funtsean, ez da aldaketa handirik igarri. Egia da hor daudela norgehiagokan globalizazio ekonomikoaren aldekoak, eta prozesu horretan gizakiaren suntsipenaren oinarria dagoela uste dutenak; horretaz mintzatu zaigu, hain zuzen ere, Johannesburgoko azken biltzarrean.

Nik uste dut, neurri batean, Internazionalaren oinarrietara itzultzen ari garela, orain mende eta erdiko langileen interna-

zionalera, alegia. Konfiantza osoa daukat mugimendu horietan, baina ez gaur egun duten jokabidean, nire ustez, modu zehatzago eta pluralago batean aritu beharra baitago; nolahi ere, hortxe dugu kaosera garamatzen politika geldiarazteko aukera, ondorio onik ez baitago globalizazioaren bidean.

“Gizakiok ez gara gai akatsetatik ikasteko”

EGOERA POLITIKOA

Garai zailak, eta zer esanik ez gurean, Batasuna legez kanpo uzteko prozesua abiatu den honetan. Zer deritzozu horri? Hori al da, zure ustez, politika egiteko modua?

Ez dakit Batasuna legez kanpo uzteak zer nolako ondorioak ekarriko dituen: ez dut batere argi. Erabaki politikoa izan da, horixe nire iritzia; baina aitortu beharra dago orain arteko egoerak ere ez gintuela inora eramaten. Beste modu batean esanda: ez naiz ni okerrera eramango gaituela uste dutenarikoa, euskal gizartearen zati handi batentzat pentsaezina baita okerretekin okerragora joatea. Nahi nuke, bai, alderdi demokratikoen arteko ezinikusia eta harremanik eza gehiago ez areagotzea. Ajuria Eneako egoerara bueltatzearekin bat nator, izan ere ezinbestekoa da gizartearen gehiengoa den hori –baita politikoki ere– elkarrengana biltzea. Nik ez dut sinesten ez euskal nazionalismoak erakusten duen politika ezan, ezta ere Espainiako gobernuak saltzen dizkigun ilegalizazioaren onuretan. Dena dela, garbi dago zer bait egin behar dela, hutsaren hutsa baita egun gertatzen ari dena.

Beharbada, orain mende laurdena Gernikako Estatuarekin adostutako kompetentziak berehala eta behingoz bideratzea litzateke bidea.

Elkarrenganako leialtasuna behar luke horrek, bi gobernuen leialtasuna. Gernikako Autonomi Estatuak baliabide bikoitza du, baina alde bakarrari begiratzen diote bai batzuek eta

bai besteek. Euskal herritarren eta gobernu zentralaren arteko akordioa da lehen baliabidea, eta bigarrena, euskal herritarrok gure artean elkar ulertzeko akordioa. Biak bat behar ditugu, ez gobernu biek erakutsi duten lubaki politikoa. Elkar ulertze hori konpetentzia guztiak betetzearekin batera etor daitekeela uste dut; horretaz gain, joko politikoa gainditu beharra dago, ezin larriagoa iruditzen baitzait gaur egun politikoen diskurtsoaren eta herritarren artean zabaldu den amildegia, desadostasuna.

Nolakoa behar luke, zure ustez, Euskal Herrian garai berrirako lehen urratsak?

Ez dakit. Arestian aipatutakoari heldu behar diogu berriro ere. Alde batetik, arazoak eta zoritxarrak ez dira konpontzen askotan, azken muturrera eraman arte; baina beste aldetik, garbi dago ez dugula ezer ikasten, I-11koa aztertu besterik ez dago horretaz konturatzeko. Gurean ere izan dira gertaera lazarriak eta onartezinak, eta arazoa konpondu beharrean, okerrera egin du. Den-denak aritu dira ETaren eta HBren presentziatik abantailak eta etekin politikoa ateratzen, eta nik uste dut amaiera eman behar zaiola joko zikin horri behingoz. Elkar ulertze demokratikorako oinarriak berrosatzean datza, nire ustez, urratsetariko bat, eta hori alderdi demokratikoei dagokie. Egia da bestelakoa dela herriaren egunerokotasuna, baina egia da ere, azken urteetako politika moduak areagotu egin dituela muturreko muturrak. Ez dira onak, ez, gaur egungo baldintzak: lubaki politikoa murgilduta gaude, eta eguneroko gertaerek horretara bultzatzen gaituzte.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Zein da Euskal Herriko Unibertsitateak bide horretan izan dezakeen parte hartzea?

Gizabide gunea da Unibertsitatea, arrazoi gunea; hor dugu, beraz, non elkartzetik. Unibertsitateak, hala ere, euskal gizartearen tirabira eta norgehiagoka berberak pairatzen ditu. Hortaz, gizabidera bideratu behar ditugu gure ahaleginak: bere baitan analisisa dakarren gizabidera, intelektualak eta unibertsitariak errealtatearekin zorrotzak izatera behartzen duen gizabidera. Egiaren alde lan egin behar dugu, topaguneen alde, onartezina denari onartezina dela esatearen alde. Badakigu, jakin, hala ere, Unibertsitatean bertan egoera ez dela batere xamurra.

Nola konpondu hori orduan?

Unibertsitatea elkar ulertzeko espazio moduan garatuz. Lagun hurkoa ukatzea dakarren politika egitea ezin du onartu Unibertsitatea bezalako erakunde batek, eta, hain zuen ere, joko horretan sartu ez izanagatik izan dugu hainbeste arazo. Dena dela, ondo ari garela uste dut eta, epe laburrera emaitzak agerikoak ez badira ere, ziur naiz, luzera, herritarrek ulertuko dutela ahaleginak eta bost egin ditugula elkarren kontrako Unibertsitatea ez eraikitzeko.

Arabako campusak ba al du hazteko aukerarik?

Azken urteotan, Euskal Herriko Unibertsitatearen esparruan gora egin du nabarmen Arabako campusak, bai irakasle kopuruari begira bai ikasle kopuruari begira ere, %9 izatetik, %15 izatera heldu baikara. Alde horretatik garbi dago, beraz, Arabako gizarteak bere egin duela Unibertsitatea. Goraipatzeak dira, bestalde, bertako erakundeek erakutsi duten laguntzeko gogoia: azpiegiturak ugaritu ditugu, zerbitzuak, eta oraindik orain liburutegi nagusia zabaldu dugu. Lehen mailako campusa antolatzen ari gara, eta ez gainontzeko campusetatik isolatua, baizik eta guztiz barneratua Euskal Herriko Unibertsitatean; hortaz, oso pozik nago Arabako lantaldeak egindakoarekin.

Eta zertan da euskararen normalizazioa?

Hizkuntz normalizaziorako bigarren egitasmoa garatzen ari gara. Orain gutxi eman digu Juanjo Larreak, Erdi Aroko Historia irakasleak eta Euskara errektoreordeak, egungo egokieraren berri, eta benetan onak dira emaitzak. Hala ere, ezin uka zailtasunak ditugula, plangintzaren abiadura ulertzeko ikuspegi ezberdinak baitaude, azkarregia batzuentzat, geldoegia besteentzat. Bestelako zailtasunak ere baditugu: irakasle elebidunak aurkitzea, euskararen oinarri zientifikoak ezartzea, terminologia, kontzeptuak, bibliografia... baina aurrera bidean, beti ere. Egungo ikasle elebidunak aukera du irakasgaiak nahi duen hizkuntzan jasotzeko; aukera hori ez dauka ikasle erdaldunak. Bi ereduak tartekatzea litzateke onena, Katalunian bezala, baina bide luzea daukagu haraino heltzeko.

Alfaro Fournierren jarraitzailetzat jotzen zaituzte batzuek. Nolako azterketa egingo luke gizon horrek gaur egungo Gasteiz hiria ikusita?

Bi Alfaro ikusten ditut nik argi: bere biografia idatzi zuena –40ko eta 50ko hamarkadetan egindako hausnarketak–, eta biografia hori egin zuena –politikoa, Gasteizko alkatea–. Zintzotasun intelektual ikaragarria erakutsi zuen beti Alfarak, aztertzaile zorrotza izan zen, eta beti uko egin zion errealtate erdibitzeari. Hausnarketa oso modernoak buruan, Francoren diktaduragatik izan ez balitz, Frantziaren pentsamenduaren parean jarri zitezkeen bere gogoetak. Gaur biziko balitz, pozaren poze hartuko luke Gasteizko hiriburuak hartutako norabidea: modernitatea eta Euskal Herrira sendo lotu duen jarrera. Begi onez ikusiko luke hori guztia, eta baita hau ere: ez dutela zertan kontrajarriak izan euskal nortasunak eta espainiar eremuak. Haren gogoetarako unibertsoa Espainian gauzatzen bada ere, euskal nortasuna sutsu eta naturaltasun osoz defendatzeko gaitasuna zuen Alfarak. Maitasuna beti irizpide, Euskal Herrian beti erroak izan dituen maitasuna, baina orain, aitaren eta amaren artean aukeratzeko eskatzen zaigun honetan, hain arrotz egiten zaiguna.

José Luis Padrón
Idazlea



Mundua on line

MERKATARITZA ELEKTRONIKOARI BURUZKO KONGRESUA

Bilboko Euskalduna Jauregia *“e-Business Global Conference”* izeneko kongresua egingo da aurtengo urriaren 28 eta 29an. Nazioarte mailako ekintza honen helburua Internetek negozioetarako eskaintzen dituen erabilera baliagarriak eta etekinak ezagutaraztea eta bultzatzea izango da. Antolaketa, estrategia eta merkataritza elektronikoa 20 aditu baino gehiago eta 400 enpresetako ordezkari bilduko dira Bilbon, enpresa nahiz erakundeei dudarik gabe aukera paregabeak eskaintzen dizkien merkatu-errealitate berri honi buruzko esperientzia arrakastatsuak aztertzeke.

Informazioa eta izen-ematea:

<http://www.ebgconference.com>

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

Lanbide.net: 4.000.000 bisitari uztailean

Hemezortzi hilabete dira Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta *Egailan* elkarte publikoak *lanbide.net* ataria abian jarri zutela.

Interneteko atari honen xedea da lan bila dabilen orok egoia zaion lanpostuen zerrenda eskuratzea. Horretarako, EAEko lan merkatuaren inguruko edozein informazio eskuratzeko aukera zabaltzen da. Lan eskaintzaz gain, heziketa ikastaroak ere argitaratzen dira.

Hauek dira Joseba Azkarraga Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak eman dituen datuak, hemezortzi hilabete hauetako jarduna aztertu ondoren: 230.850 erabiltzailek harpidetza egin dute; 10.812 heziketa ikastaro argitaratu eta 63.325 lan eskaintza egin dira. Batez beste, 3.125.000 erabiltzaile hilabetean.

Jolas Truke 2002. Euskal Herriko kromo bilduma

Nafarroako Ikastolen Elkarteak *Jolas Truke 2002* Euskal Herriko kromo bilduma aurkeztu du. 164 kromoko bilduma honek helburu pedagogikoa du: haurrek euskara ahotan kromoak trukatzuz harremanak egin eta Euskal Herriko historia eta kultura ezagutzea.

Kromo bakoitzaren azpian esaldiak eta azalpenak daude eta baita euskaraz jolasteko hainbat proposamen ere. Kromoak kioskoetan erosi ahal izango dira, 40 zentimotan; albuma, berri, *ikastolak* aldizkariak, *Garak* eta *Deiak* banatuko dute.

Enpresetan euskara garatzeko diru-laguntzak (2002-2003)

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak 661.282 euro eman ditu lantokietan euskararen erabilera bultzatzeko, arlo hori estrategikoa baita euskararen normal-kuntzarako.

Laguntza hauek eskatu nahi dituen enpresa orok euskara plana aurkeztu eta gauzatu beharko du, eta ondoren, urrats hauek jarraitu: euskara-planaren diseinua landu, enpresaren jardueran txertatu, eta lortutako emaitzak enpresan errotu.

Hizkuntza corpusen inguruko jardunaldiak

UZEIk antolatuta, urriaren 24an eta 25ean Hizkuntza corpusei buruzko jardunaldiak izango dira Donostian.

Jardunaldiotan corpusek lexikografian duten garrantzia jorratuko da eta baita eztabaidatuko ere zertan diren gaur egungo corpusak eta nolakoak behar duten etorkizunekoek. Eztabaidatik ateratako ondorioak kontuan hartuta, XXI. mendeko euskararen corpusen inguruko gogoeta egingo dute.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Europako Batasuna

Euskal Herri osoaz hitz egitea nahiago genukeen arren, artikulu honetan Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) soilik izango dugu mintzagai. Bi arrazoi dira horretarako: batetik, idazlan honen mugak; eta bestetik, gure herria hiru esparru juridiko eta politikotan zatikatuta egoteak dakarren informazio falta. Bestalde, Europa kontzeptua hitzetik hortzera erabiltzen badugu ere, askotan Europako Batasuna (EB) baino ez dugu buruan. Nahasmena saihestearren, ondoko lerroetan EAeri eta EBri buruz jardungo dugu, eta, bestelakoetan, argi esango dugu zertaz ari garen.

HAINBAT DATU ESTATISTIKO

Zertan da EAE Europako Batasunaren aldean? Jakin-min hori asetzeko hainbat adierazle makroekonomiko eta sozial erabili ohi da. Guk ere, labor bada ere, berdin jokatuko dugu.

ZENBAIT ADIERAZLE ESTATISTIKO (1999)	Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)	Europako Batasuna (EB)
Populazio dentsitatea / km ²	282,80	117,4
Jaiotze tasa / 1.000 biztanleko	7,9	10,6
Pertsonako Barne Produktu Gordinaren indizea	%101	%100
Enplegu Tasa Orokorra 15-64 urtekoentzat	%56,84	%63
I+Gko gastua (miloi eurotan) Barne Produktu Gordinarekiko	%1,18	%1,86
Langabezi tasa orokorra	%14,7	%9,4
Emakumezkoen langabezi tasa	%21,66	%10,9

Iturria: Eurostat (2001) *Regions: Annuaire statistique 2001*, eta ondoren guk geuk landua.

Biztanle-dentsitateari erreparatzen badiogu, azpimarragarria da EAEk duen jende-pilaketa; horrek agerian jartzen du gure erkidegoaren izaera urbanoa (garapen ekonomikoari lotuta, zalantzarik gabe). Bestalde, EBko jaiotze tasa txikia da munduko beste zonaldeekin alderatzen badugu, baina are txikiagoa da gurea, eta hori herri garatu eta urbanoen berariazko joera da gaur egun.

Eta garapen ekonomikoa aipatzean, gogora ekarri behar ditugu EAEko siderurgiak –ekonomiaren zutabeak– jasan zuen krisi larria, eta gainbehera horrek ekarri zituen ondorio latzak ekonomia osorako. Halere, bizpahiru hamarkada beranduago EAEko jarduera ekonomikoak izan duen gorakadaren ondorioz, hemengo Pertsonako Barne Produktu Gordina (PBPG) EBkoa baino puntu bat altuagoa da.

Parekatze horrek, alabaina, ez du islarik beste datu sozioekonomikoetan; izan ere, gure Enplegu Tasa Orokorra (ETO) eta gure Barne Produktu Gordinarekiko dugun I+Gko gastua baxuagoak dira EBkoak baino; beti ere ahaztu gabe gure langabezi tasak altuagoak direla.

IRITZIAK¹

Hoztasuna: EAEko biztanleek urruti samar dute Europako Batasuna; ez, beharbada, geografikoki, baina bai, behintzat, gogoan. Gure artean %95k Euskal Herriarekiko atxikimendua adierazten dute, %63k Espainiarekiko; Europarekiko, aldiz, %56k baino ez. Halere, gure herritarrek EBrekiko adierazten duten “hoztasun” hori bat dator EBko 15 estatuetako hiritarrek azaltzen dutenarekin, %59k atxikimendu bertsua adierazten baitute.

Urruntasuna ez dirudi sentimenduetara bakarrik mugatzen denik: euskal herritarrek, batez beste, EBko beste 2 estatu baino ez dituzte bisitatu; edo, bestela esanda, gure herritar arruntek Europako Batasuneko 15 estatuetatik 12 ez dute inoiz zapaldu (kontuan izan, ezagutzen dituen hiru horietatik bat Espainia dela).

Ezjakintasuna: Are harrigarriagoa da ondorengoia; Europako Batasuna zenbat estatuk osatzen duten galdetzen bazaie, EAEko %29k baino ez dakite 15 direla. EBko erakunde ofizialei buruz itaunduz gero, gure erkidegoko eta EBko datuak oso antzekoak dira: adibidez, EAEn %90k eta EBn %89k Europako Parlamentuaz zerbait entzun dute; baina Erregioen Batzordeaz, bakar-bakarrik %39k EAEn, eta %26k EBn. Larriak dira azken datu horiek, izan ere, EBren baitan EAEk duen berezko kokapen instituzionala Erregioen Batzorde horretan bertan delako.

Onarpen apala: Esandako ezjakintasunaz gain, kezkarria ere bada EBko demokraziaren funtzionamenduaz jende asko gustura ez egotea: EAEn %46 daude pozik (EBn, %40) eta, aldiz, poztasun maila baxua edo batere pozik ez daudenak %40 eta %43 dira EAE eta EBn, hurrenez hurren. Bistan da zalantza eta mesfidantza nahiko hedatuta daudela bi esparruetan.

Itxaropena: Halere, EBko partaide izateagatik gure herriari onura letorkiokeela uste dute gehienek gurean; alegia, EBn baitan kokatuta egotea gauza ona dela uste dute EAEko biztanleen %68k. EBko hiritarrak, aldiz, ez dira hain baikorrak kontu honetan: %48k baino ez dute uste gauza ona dela.

¹ Hemendik aurrerako datuen iturria: http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

ZENBATERAINO EZAGUTZEN DUTE EAE EUROPARREK?

1998ko datu batzuen arabera, EBko biztanleen %77k Euskal Herriaren berri bazutela zioten, bereziki Espainiakoeak eta Frantziakoeak (%99 eta %94, hurrenez hurren). Beste muturrean Grezia zegoen, non %48k bakarrik entzuda baitzuen noiz edo noiz gure herriaren izena.

Ezagutza horren nondik-norakoak hobeto antzemateko, ikus dezagun non kokatzen zuten Euskal Herria, gutaz zerbait entzun dutenek: EBko herritarren %59k Espainian zegoela zioten, %6k Frantzian eta %24k bietan, Espainian eta Frantzian. EBko 15 estatuetatik soilik Frantzian zegoen gehiengo bat (%67k) Euskal Herria Espainian eta Frantzian, bietan batera, kokatzen zuena; gainontzeko estatuetakoa herritar gehienek –Espainiakoeak barne– bakarrik Espainian dagoela uste zuten. Bestalde, datuek diotenez, lau biztanletik hiru ez dira inoiz izan gure herrian, eta inoiz bertaratu direnen artean, gehienak (%75) turista gisa etorri zaizkigu.

Gure garapenaz galdetuta, EBko biztanleen erantzunak oso banatuta zeuden: %36k Europako batez bestearen antzekoa dela zioten, eta beste horrenbeste ziren Europakoa baino baxuagoa dela uste zutenak; bakar-bakarrik %4k uste zuen Europakoa baino maila altuagoa dugula, batez ere Portugalen (%16) eta Espainian (%8).

Gutaz pentsatzen dutenari dagokionez, EBko %48k ez zuten gutaz ez iritzi onik, ezta txarrik ere; bigarren lekuan gutaz uste ona zutenak zetozen (%28), eta iritzi txarrekoak gutxiengo bat baino ez zen (%12). EBko estaturen artean, Espainia zen gutaz iritzirik onena zeukana (%58k iritzi ona baitzuten).

Eta azkenik, 1998. urtean hauek ziren iritzirik hedatuena gure izaeraren gainean: %54k independentistatzat gintuzten, %26k bortitzak ginela uste zuten, %18k langileak, %14 abegitsuak eta, azkenik, %7k prestu edo zintzoak.

LABURPEN GISAKO AMAIERA

Laburbilduz, EAE ez dabil zifra makroekonomiko potoloetan EBko batez bestetik urrun, eta zenbait ikuspuntutik begiratuta, erdialdean gaude, bete-betean. Ezin da ahaztu, hala ere, EBren baitako estaturen artean dauden aldeak handiak direla, eta guk batez bestearekin ari garela konparatzen, ez garatuenekin. Egia da EBko erakundeak ez ditugula ezagutzen eta horiekiko halako mesfidantza erakusten dugula, baina egia ere bada, europarrak ez bezala, Europan egoteak ekar ditzakeen onuren aurrean pozik gaudela. Herri txikia da gurea, eta EBko pertsona gutxik bisitatu bagaituzte ere, jende gehienak badu gure berri; nolana ere, gutxi dakite gutaz, eta nagusiki, aldarrikapen politikoarekin lotzen gaituzte.



Iñaki Martínez de Luna
Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduraduna

“Kanpora saltzen duten euskal enpresak geroz eta gehiago dira”

Nazioartera zabaltzea dela-eta, azken bost urteotan zein joera izan dute euskal enpresak?

Goranzko joera, oro har, alde guztietatik begiraturik. Alde batek, esportazioek gora egin dute, 1995ean 6.000 euro baino zer edo zer gehiagokoak izan ziren, eta 2001ean, berriz, 11.400 eurokoak. Bestetik, kanpora saltzen duten enpresak ere geroz eta gehiago dira. Eta bada beste kontu bat azpimarratu beharrekoa, hau da, esportazio-gaia bera ere aldatzen ari dela poliki-poliki; hain justu, esportazio guztien artetik, azken bost urteotan %10 garrantzi handiagoa lortu dute teknologia ertaineko edo handiko produktuek. Eustaten arabera, 1995ean, euskal esportazioen %41 osatzen zuten halako produktuek, eta 2001ean, berriz, %52tik hurbil ziren. Aldaketa ederra, esportazioen osakeran. Eta geroz eta gehiago esportatzeaz gainera, eta esportatzen dugun horretan teknologiak geroz eta garrantzi handiagoa edukitzeaz gainera, inbertitu ere geroz eta gehiago egiten dugu kanpoan, bai lantegi modura, bai ezarpen komertzialen bidetik. Gainera, euskal enpresak ez dira bakoitza bere aldetik mundura ateratzen, elkarrekin baizik, sektorez sektore 68 esportazio-elkartetan bilduta.

Zein merkatutara begira egon ohi dira euskal enpresak eta kanporako jauzi hori lehenengoz egiten dutenak zeinetara joaten dira?

Merkatu nagusia, euskal esportazioen lehen jomuga, Europar Batasuna da, hara baitoa %68, eta, lehen tokian, Frantzia, Alemania eta Italia eta Erresuma Batua. Bigarrenik, NAFTA herrialdeak ditugu, hau da, Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko, hara baitoa esportazioen %9, eta, hirugarrenik, esportazioen %5, gutxi gorabehera, Hego Ameriketara doa. Esportazioen mapa handi horretan, beste herrialde batzuk ere badira, EBkoak ez izanagatik ere geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak, hala nola, Polonia, Hungaria eta Txekiar Errepublikak, eta baita beste kontinente batzuetakoak ere, esate baterako, Brasil eta Mexiko. Enpresa hasiberriek hurbileko merkatuetara jotzen dute, Frantzia eta Portugalera adibidez. 2000. urtean 5.498 euskal enpresa izan ziren atzerrian gutxienik operazioen bat egin zutenak.

Bat al datoz enpresen aukerako herrialde horiek eta Eusko Jaurlaritzaren interesak?

Orain dela urte pare bat azterketa bat egin genuen jakiteko ea Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak zein herrialdetara begira lan egin behar zuen lehentasunez. Hainbat merkatu aztertu genuen, irizpide kuantitatiboak eta kualitatiboak erabilita, eta kontuan izanda bai euskal enpresak zein interesa erakusten zuten merkatu horiekiko bai zein iritzi zuten esportatzaile-elkarteek, enpresa-taldeek eta nazioartera zabaltze hori bultzatzen ziharduten beste eragile batzuek. Horrela, herrialde-zerrenda bat osatu genuen, eta bat zetorren euskal enpresen aukerako herrialdeekin, nahiz eta Europar Batasuneko herrialderik jaso izan ez, enpresak erakunde laguntza beharrezkoa zuten merkatu berriak aurki-

tzea baitzen kontua. Hau da, dibertsifikazioa, merkatu berrietara zabaltzea.

Dirudenez, esportazio-zentzua ere aldatzen ari da, euskal enpresak nazioarteratzen ari diren neurrian...

Bai. Azken urteotan gertatzen ari den aldaketa erabatekoa da. Lehen, Euskal Herrian egindako produktuak ziren kanporatzen zirenak, orain, aldiz, enpresa osoak dira kanporatzen direnak, garraio-kostuak ekidin eta tokian tokiko merkatuari bertatik bertara lehiakorrago erantzun ahal izateko. Esate baterako, azken datuen arabera, euskal enpresak 124 ekiztetxe edo lantegi eta 646 ezarpen komertzial dituzte mundu guztian zehar sakabana-tuak eta 2001 urtean 3.000 milioi euroren inbertsioak egin zituzten atzerrian.

Esportazioen alderdi teknologikoak jauzi kualitatibo ederra egin omen du, zuk esan duzunez. Zein aurre-rapauso izan da lerketa eta Garapenaren arloan?

Euskadin, 2000. urtean, guztira, 594 milioi euro inbertitu ziren I + G arloko jardueretan, hau da, aurreko urtean baino %19 gehi-go, Eustaten arabera. Barne-produktu gordinaren %1,51 da hori, eta estatuko batez bestekoaren gainetik gaude beraz (%0,94), baina Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik (%1,90). Hau da, azken 15 urteotan I + Gko inbertsioa 20 bider handiagotu da, eta enpresa pribatuak Italian edo Frantzian baino ekinagoak izan dira zeregin horretan.

Eta ekonomiaz bereziki, zein balantze egin daiteke?

Ekonomiaz? Mahai ganean ditugun datuen arabera, balantzeak ezin du hobea izan. Hara, ekonomia bera Europako batez bestekoa baino gehiago hazi da, baita Alemanian edo Erresuma Batuan baino gehiago ere; gure herrialdeak atzean utzia du, jada, EBko batez besteko per capita BPG; langabeziak nabarmen egin du behera, eta, orain, %10koa baigo txikiagoa da, eta orain dela 25 urte %25aren gainetik ginen. Hau da, oraindik ere badugu zeregina –gizarte guztietan baitago zeregina–, baina azken urteotan, Euskadiko ekonomiak aurrera egin du, zalan-tzarik gabe.

Datu objektiboez gainera, balorazio subjektiboren bat egiten ausartuko al zinateke?

Mendez mende euskalduna betidanik ibili izan da munduan. Garai batean arrantzaleak, marinelak, konkistatzaileak eta misio-lariak izan ziren nagusi. Orain, berriz, enpresak eta espresariak ditugu gure ikurri eta enbaxadorerik onenak. Detxeparek esana da hamaseigarren mendean “ialgi hadi mundura” eta Iparragirrek, hemeretzigarrenean, “eman eta zabal zazu munduan fruitua”. Gaur egun euskal produktuak dira mundu zabalera ialgitzen ditugun fruituak.

Oberenak hiruna berdindu zuenekoak [benetako istorio bat]

Negua hegoaldeko lur epelagoetan igaro eta gero, 1944ko maiatz hartan, enarak itzuliak ziren zegoeneko gure herrira. Alde Zaharrean eta, batez ere, Errekoleten komentuarien inguruan ageri ziren arrastrietan, dozenaka, ehunka. Enara asko eta asko. Orduan esaten zuten, jende ugari eramaten zituen arrautzak eta opilak komentura, egun jakinetarako eguraldi onaren edota soroetarako euri eske. Askok, baita egindako bekatuek kontzientzian zabalduko zuloa estaltzearen ere. Komentuan, azken hauen eskaintzak izan ohi ziren ugarinak, eta komentuarien barrualdeko lorategian eta zelaietan ez zen sekula opilen papurrik falta izaten. Papur gozoek eta ederki zainduko zuhaitzek erakartzen omen zituzten enarak bertara. Horregatik, antza, ageri ziren batik bat inguru hartan enara gehien. Mikel Iñakik, ordea, ez zuen batere gustukoa leku hura. Intsensu eta santu usaineko komentu hartan ez zuten begirune handirik euskararekiko. Gurasoek ere, gainera, hainbat arazo izan zituzten bertakoekin. Haurra zen, baina egin berri zituen hamabi urteek hainbat bidegabekeria ikusi eta gogoratzeko gaitasuna eman zioten ordurako.

Zauria zaharra izan arren, zornatua zuen oraindik haurrak. Eta ez zien barkatzen enarei komentu eta eliza inguruekiko halako miwesmena. Papur gozoak aurkituko zituzten haien inguruetan, baina duintasunak gehiago balio zuen. Enarek, ordea, ez zekiten askorik duintasunaz eta euskarari begirunerik ez zioten lekuetaz, eta horregatik pozten zen komentuko papur gozoetatik urrun enarak ikusten zituenean. Haiek ziren benetako hegaztiak, haiek...

San Isidroko kirol zelai berria inauguratu zen egun hartan, esaterako, hainbat enara itzulika ibili ziren futbol partidak irau zuen bitartean. Zeruaren kateetan preso egon arren, antza, hegaztiak ere Oberenaren eta Peña Sporten arteko lehia ikusi nahi zuten. Enarak inguruan ikusteak leundu zion ordukoan ere Mikel Iñakiri inaugurazio ekitaldiko amorrazioa. Izan ere, Añoveros erretorea izan zen ekitaldiaren buru. Eta erretoreak, dagoeneko sumatuko duzuen, haurraren zauria areago zornatzen zutenetakoak ziren.

Hamabi urte lehenago hasi zen guztia. Benediktok eta Martzelinak lehen semea izan zutenean. Euskaraz eman nahi zioten izena Bataiatuen Liburuan. Santa Mariako erretoreak, ordea, behin eta berriro uko egin zion gurasoen nahiari. Ezetz eta ezetz zioen. Liburu hartan izena ematekotan, nahi bazuten, Ignacio Miguel behar zuela haurrak. Gainerakoan, ez zuela bataiatuko. Benedikto eta Martzelinak, ordea, sutsuki defendatu zuten semeari euskal izena eman ahal izateko eskubidea. Ika-mikak irau zuen asteetan, ordea, ez zituzten batere begi onez hartu herriko

hainbat lekutan. Bikoteak haur erdalduna baino lehen haur ateoa izatea nahiago zuela zioen jendeak. Kontu hura esamesen ardatz bihurtu zen herrian, eta agintariekin, elizarekin eta guardia zibilekin arazoak izan zituzten gurasoek. Areago, gainera, Vatikanoko ordurako haurrak sorlekuko hizkuntzan edota ama-hizkuntzan erregistratzeko aukera onartua zuela jakinda demari eutsi eta Benediktok eta Martzelinak nahi zutena lortu zutenean. Santa Mariako erretoreak kopetilun idatzi zuen azkenean Mikel Iñakiren izena, bere horretan, Bataiatuen Liburuan. Aurrerantz, ordea, zorrotza izan zen gurasoekin zein haurrekin.

Zegokien eskubidea baliatzea, ordea, ez zieten barkatu gurasoei. Benedikto, aita, haurra sortu eta hilabete batzuetara hil zen. Haren nahia betetz, euskaraz paratu zioten hilarriko plaka. Erretoreak hura ere kopetilun onartu behar izan zuen. 1936ko kolpea eta gero, ordea, berehala desagertu ziren Benediktoren hilarriko hitzak. Militarrek eta apaizek herrian erauzi zuten lehen ikurretako bat izan zen hilarri

hartako plaka. Gorria izatea bekatu larria zen urte haietan, eta euskara nekez onartzen zen ofizialki. Udalaren inguruan sortzen ziren elkarte eta talde gehienek erdal izena zuten, baina herritarren ekimenez sortuek, ordea, debekuari aurre egin, errebeldia keinu gisa, euskal izena agertzen zuten.

1944ko udaberri hartan herrian antolatzen haur eta gazteentzako futbol txapelketan, esaterako, Tafalles, Hamaika bat, Alkartasuna, Tubal,

Aurrera, Calasancio, Mutilaskar eta San Pedro taldeek hartu zuten parte. Mikel Iñakik harro defendatu zituen Alkartasunaren koloreak. Futbolzalea zen, eta orduko mutiko gehien moduan, herriko Peña Sport taldean jokatzeko amesten zuen. San Isidroko kirol zelai berria inauguratu zen egun hartan, ordea, Oberenak irabaztea nahi zuen. Euskararen eta erdararen arteko lehia zen hura beretzat. Bi aldeak islatzen zituen partida hark haurarentzat. Eta Oberenaren garaipena, mendeku ttipia izanen zen erretorearen, agintarien eta guardia zibilen aurrean. Bazekien, arratsalde hartan, euskaltzaleak Oberenaren alde zeudela, inor gutxi ausartzen bazen ere talde hura animatzera. Hiruna amaitu zen partida.

Gaur egun, 70 urte eta gero, Mikel Iñakiren sorlekuan, lerro hauek idatzi diren herrian, Tafallan, euskara ukatua, zapaldua eta susmopekoa da eskubide osoz erakunde ofizialetan erabili nahi izanez gero. Isilpean, gero eta gol gehiago sartzen dizkiote Oberenari.

Gari Berasaluze
Idazlea




Telefono zenbakien idazkera eta irakurketa

Jende askok galdetzen digu ea araurik dagoen telefono zenbakiak idazteko, eta horrelakorik bada, nola esan behar diren zenbaki horiek ahoz. Kezka hori ikusita, lerro hauek idazten ausartu gara, ea argi pixka bat ekartzen dugun.

Esan dezagun, lehenengo eta behin, telefono zenbakiak idazteari buruzko araurik ez dugula ezagutzen; hala ere, badirudi modu berezi batez jaso ohi direla, errazago irakurtzeko eta, garrantzitsuena, errazago gogoratzeko. Modua hauxe izaten da (zenbait tarte utzita, zenbaki batzuen artean):

945 017625 (*probintzialak eta probintzia artekoak*)
00 34 945 017625 (*nazioartekoak*)

Beste batzuek zatiketa are handiagoa egiten dute, informazioa mailakatu nahian:



945 01 76 25 (*Araba, Jaurlaritza, HAEE/IVAP, langilea*)
00 34 945 01 76 25 (*nazioartekoa, Espainia, Araba, Jaurlaritza, HAEE/IVAP, langilea*)

Bestelako idazkerak ere ikusten dira, baina ez dira hain normalak:

945-147825
945 14.78.25
...

Nolanahi ere, zenbaki horiek irakurtzeko modua izaten da arazorik handienetakoa. Gaztelaniaz, ohituraren ohituraz, honela "esan" ohi dira zenbakiok:

945 147825: "nueve, cuatro, cinco... catorce, setenta y ocho, veinticinco".

Antzera gertatzen da nortasun agiriaren zenbakiekin:

16234655: "dieciseis, veintitrés, cuarenta y seis, cincuenta y cinco".

Bide beretik jotzen dute batzuek euskaraz:

945 147825: "bederatzi, lau, bost... hamalau, hirurogeita hamazortzi, hogeita bost".

16234655: "hamasei, hogeita hiru, berrogeita sei, berrogeita hamabost".

Eta ez dira konturatzen zenbaki horiek idatziz jaso behar dituenak arazo franko izan ditzakeela paperera behar bezala eramateko. "Hirurogei..." entzun ahala, "6" idaztera jotzen du mezuaren hartzaileak; "berrogei..." entzun, eta "lau"an gelditu; eta gero... gerokoak! Erraza da konpontzen arazoa: esan ditzagun zenbakiak banan-banan.

Zenbakia bikoitia dela? Uztar ditzagun binaka:

945 147825: "bederatzi, lau, bost... bat, lau... zazpi, zortzi... bi, bost".

16234655: "bat, sei... bi, hiru... lau, sei... bost, bost".

Bakoitia dela? Bada, hasieran edo amaieran hiru esan, eta gero, binaka:

91 3894849: "bederatzi, bat... hiru, zortzi, bederatzi... lau, zortzi... lau, bederatzi".

Edo:

91 3894849: "bederatzi, bat... hiru, zortzi... bederatzi, lau... zortzi, lau, bederatzi".



Joseba Lozano
HAEEko Administrazio hizkeraren arduraduna

Izen berezi batzuen deklinabidea

Duda-muda zerbitzuan galdera ugari egiten digute deklinabidearen inguruan. Hona hemen horietako batzuk eta euren erantzunak.

Andereño Mirenek ala Miren andereñoak? Nola esan behar da?

Galdera horri erantzuteko hiztegiara jo eta *andereño* topatuko dugu. Bi adiera ditu:

- ◆ Bata, emakume ezkongabea adierazteko erabiltzen da, titulu gisa, deituraren ondoan jarrita.
- ◆ Bestea, haur eskoletako irakasle emakumezkoak izendatzeko.

Titulua bada, eskuinean jartzen dugu: *Urrutia andereñoa, Miren andereñoa...*

Umeen irakasle emakumezkoa adierazi nahi badugu, zuk aipatutako bi era horietara egin dezakegu: *Andereño Mirenek* edo *Miren andereñoak* esanda.

Ikusten denez, heldu gara berriz hasierako galderara: baina, nola da? Gure ustez, bietara dago ondo, hara zergatik:

Ezkerretara jarrita, hau da, *Andereño Mirenek* esaten badugu, izen berezizat hartzen dugu *andereño* hitza, eta ahaidetasuna adierazteko erabiltzen ditugun izenen pareko egiten dugu, esan nahi da, *ama, amama, aitatxo, osaba, izeko...* eta horrelakoen pareko. Senidetzat hartzen dugu beraz, eta jarri ere *aita* edo *izeko* jartzen ditugun lekuan jarriko dugu: *Osaba Romanek, Amama Kattalini, Andereño Anerentzat*



Eskuinean jarrita, hau da, *Miren andereñoak* esaten badugu, euskaraz oso normala den egitura erabiltzen ari gara: *maisua, irakasle* edota, esaterako, *plaza, ibaia* bezalako izen arruntekin erabiltzen dena. Horrelakoetan, *andereño* izen arrunta da, eta izen bereziaren lana izaten da izen arrunt hori zehaztea: *Oria ibaia, Untzaga plaza edo Miren andereñoa*. Beraz, bietara ondo dagoen arren, hara guk nola izendatuko genukeen gure umearen maistra:

- ◆ Izen bereziaren ondoan badoa, mugagabeen eta izenaren ezkerretara jarrita, senidea balitz bezala: *Andereño Mertxek, izeko Eliri*.
- ◆ Ezelako izenlagun edo adjektiborik gabe ere, hobe mugagabeen: *Andereñok esan du, eta ekarri egin beharko dugu bada*.
- ◆ Mugatzailea jarriko genioke izenlaguna edota adjektiboren batekin badoa: *Ez dut ezagutzen andereño berria. Mikelen andereñoa beste eskola batera joan da*.

Zer gertatzen de jaun/andre/errege hitzekin? Beti zalantza egiten dut: non jarri? ezkerrean? eskuinean?

Bi zatitan erantzungo diogu galderari. Lehenengo *jaun/andre* hitzei helduko diegu eta gero *errege* hitzari.

■ Jaun/andre

Jakinekoka da *jaun/andre* hitzok errespetua adierazteko erabiltzen ditugunean bakar-bakarrik ere sarri ager daitezkeela; hara adibide bat bati baino gehiagori ezaguna egingo zaiona:

–Badakizu bosgarren aginduak zer dioen?

–Ez Jauna.

Baina galdera egin duenak jakin nahi du ea beste izen baten ondoan doanean non jartzen den. Bada, kontua da horretan ere mugak banatzen gaituela, hau da:

Iparraldean izen, deitura, kargu edo lanbidearen aurrean jartzen dira, normalean: *Jaun Auzapeza, Andre Catalina...* Hegoaldean, berriz, gaur egun, izen, deitura, kargu edo lanbidearen eskuinetara jartzen ditugu ia beti; nahiz eta historian zehar bestera ere egin dugun. Hor ditugu esaterako: *Andra Miliia Lasturko, Andre Maria* –Ama Birjina izendatzeko–, *Andre Madalen, Jaun Zuriano* edota Mitxelenak aipatzen zituen: *Andre Poesi, Andre Arrazoi*. Hauxe duzu, beraz, Hegoaldeko gaur eguneko joera: *Azkue jauna*.

Laburtzeko: *jaun* eta *andre* izenaren aurrean zein atzean jar daiteke, beti ere tokian tokiko usadioa errespetatuta.

■ Errege

XIX. mendearen bukaera arte *errege* hitza bakar-bakarrik –inolako osagarriarik gabe– eta singularrean agertzen bazen, gehienetan, mugagabean deklinatzen zela; baina gaur egun mugatura jotzen dugu. Badirudi, esaten dute... badaukala zer ikusia erregea zeurea izan edo ez, hau da: bere mendean bazaude, *errege* esaten zela eta beste nonbaitekoa bazen, *erregea* jartzen zela. Guk, egia esateko, ez dugu hori frogatzeko saiarik egin. Hara lehengo eta oraingo zenbait adibide:

Jaun erregek mezu nenzan...

...erregeren borondatea...

Erregeren Gobernu urbiltzeco...

Eta gaur egun, ordea:

PPk erregearen hitzak bere egin ditu...

Egibarren irudiko, erregearen mezuan... (Egunkaria, 2001-12-26)

Baina, bistan denez, hitz hori ez da beti singularrean eta bakarrik erabiltzen, ezta gutxiagorik ere! Normalago da osagarriez hornituta topatzea, alegia nongo erregea den, nolakoa den, zenbatgarrena den... esanaz topatzea. Eta, zer gertatzen da horrelakoetan? Bada, gehien-gehienetan mugatu egiten dela. Honela gutxi gorabehera:

◆ *Erregeren* aurrean izenlaguna agertzen bada, (*noren, nongo*), edo erlatiboren bat edo *errege* beste izen batekin badoa, bietara agertzen da:

Hala Ninive hiri handi hartako erregeak ere... (Axular, Gero, 46)

Nabukodonosor erregeari. (Axular, Gero, 46)

◆ *Errege* mugatuta joango da baldin eta:

Adjektiboren bat badarama atzetik: *Errege berria dute Belgikan.*

Noren edo nongo badaramatza atzetik: *errege Frantziakoa, errege iuduen.*

Beste edo ordinalen bat badarama aurretik: *Beste erregearen sekretarioa, Frantziako errege Louis XVI.a.*

Izen berezia al da *Olentzero*?

Gu baietean gaude. Dena dela, egia da Gabonetan honelakoak entzun eta irakurtzen ditugula:

Euskal presoan aldeko olentzeroak egingo dira bihar iluntzean Euskal Herriko herri eta auzoetan. (Egunkaria, 2001-12-23)

Eta *Olentzero* ugaria da, hori ezin da ukatu, baina, berez, erreferentzia bakarra du, Aitor edo Meltxor erregeak bezala. Beraz, gure ustez, askoz ere hobeto dago beste era honetara:

Euskal presoan alde, makina bat herri eta auzotara etorriko bihar iluntzean Olentzero.



Taberna baten izena *Arrantzaleak* balitz, nola aipatu horko pintxoak? *Arrantzaleak tabernako pintxoak, Arrantzaleakeko pintxoak?*

Guk geuk hiru modu ikusten ditugu, hara:

◆ Tabernaren izena *Arrantzaleak* bada, deklinatzeko modurik onena izen bat sartzea izango da. Horrela *Arrantzaleak tabernako pintxoak* esatea da, gure ustez, modurik egokiena. Berdin egiten dugu *ETB kirolak saioko aurkezlea* esaten dugun bakoitzean (eta ez *ETB kirolakekoa*).

◆ Bigarren aukera, –eta ez bigarrena delako txarragoa– hau da: taberna hori jabearen izenaz izendatzea. Jo dezagun tabernaren jabea *Txomin* dela, honela esango genuke: *Txominenean elkartuko gara* edo *Txomineneko pintxoak dira onenak*.

◆ Bada beste aukera bat –gure ustez, ahalik eta gutxien erabiltzea komeniko litzatekeena– eta hau da: izena *Arrantzaleak* dela testuinguruan argi utzi badugu lehenagotik, zuzenean deklinatzea, hori bai, marra jarri beharko genuke, eta, jarraian, deklinabide atzizkiak hizki biribilez. Era honetara:

Arrantzaleak-en elkartuko gara.

Arrantzaleak-eko pintxoak dira onenak.

Aintzane Arrieta
HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala

Noraino heltzen da pribatutasuna langileen eguneroko jardunean?

Langilearengan, eta oro har, gizartearengan dagoen kontrola gero eta handiagoa da. Teknologia berriak gure artean sartu izanak areagotu egin du kontrol hori. Hainbat txokotan ipinitako camaren bitartez, edota korreo elektronikoko, internet eta telefonoaren bitartez langilearen mugimendu guztiak kontrolatuta daude. Horrek arazoak sortarazi ditu enpresariengan eta langileen artean; are gehiago: langile batzuk kalera bota dituzte, enpresaren baliabideen erabilera pertsonala egin dutelako. Kontua da hor hutsune bat dagoela, ez baita zehaztu zein diren langilearen jardunaren mugak. Horra, bada, galdera: non amaitzen da langilearen arlo pribatua?



Javier Naveda
ELAko kidea

Jakin badakigu baliabideak enpresarenak direla. Enpresak kontrolatu egin behar badu, langileak kontrolatua izango dela eta kontrol horren ondorioak zein izango diren jakin egin behar du. Gure ustez, arau batzuk argi utzi beharko lirateke enpresan, funtzionamendu arauak alegia, enpresa eta langilearen artean adostuak.

Guk uste dugu enpresak ez duela eskubiderik, adibidez, langilearen postaren edukia irakurtzeko. Enpresak lortzen badu frogatzea langileak bidali dituen mezuak pribatuak direla, kasu horretan abisu bat eman beharko lioke langileari. Baina, enpresak ez dauka eskubiderik posta horren edukia irakurtzeko, esaten duena esaten duela. Posta hori oso pribatua da.

Langile gehienek ez dakite enpresak mugimendu horiek guztiak kontrolatu egiten dituela eta horiek kontrolatzeko mekanismoak badirela. Langileek lan-tresna horiek erabiltzen dituzte kontrolatuak direla jakin gabe.



Jon Sanz Landaluze
Hemen eta Munduan-eko kidea

Langileak bere eskubideak eduki behar ditu, horien artean, sindikatuzko eskubidea eta pribatutasunerako eskubidea. Eskubide hauek guztiak legean jasota daude, baina orain teknologia berriak sartu dira eta, horrekin batera, hutsuneak nabarmentzen hasi dira legean.

Akordioak egon beharko lirateke langilearen eta enpresariaren artean. Nire ustez, lanak lehen zeukan giza izaera galtzen ari da: gizatasuna galdu egin da, baina, lanaz aparte, bizitza bat du langileak. Hau guztia gertatzen da sistema kapitalista, kontsumista eta indibidual baten barnean gaudelako, eta enpresaria giro horretan erabat murgilduta dago. Langileak, berriz, lana eta enpresa ez ditu bere egiten; nik uste dut enpresaren zati sentitu beharko lukeela bere burua: enpresak langilea errespetatu, eta, era berean, langileak enpresariaren lan-tresnak errespetatu.

Langileak, eta oro har, guztiok konfiantza handia dugu teknologian, ez baitugu ezagutzen; baina gaur egun, gizartea teknologia berri hauen bitartez kontrolatzen da eta garai batean baino estuagoa da kontrola. Gobernuak askoz ere gehiago kontrolatzen ari zaizkigu eta, bitartean guk ikaragarriko konfiantzarekin erabiltzen ditugu teknologia horiek.

Irtenbidea? Nire ustez, nazioarteko esparru bat sortu beharko litzateke, eta hor, oinarriko eskubide batzuk zehaztu. Nolanahi ere, ez dut uste estatuek akordio horiek errespetatuko dituztenik.

Iñaki Alzaga
Euskalteleko
Estrategiarako eta
Negozio Garapenerako
zuzendaria



Langileak, gizakiak diren aldetik, pribatutasunerako eskubide osoa du, eta hori hala dago jasota legedian. Internet lan-tresna eraginkorra da eta baita komunikabide indartsua ere. Zein da arazoa? Bada, internet nola eta noiz erabiltzen den. Argi dagoena da bai internet, bai telekomunikaziorako tresna guztiak enpresaren baliabideak direla, eta berari dago-kio erabakitzea nola erabili behar diren.

Gaur egun teknikoki erabat kontrolatu daitezke telefonia finko eta mugikorrekiko ekipoak eta baita internet ere; bezeroaren esku jar daitezke dei eta kostuei buruzko informazio guztia, eta baita jakinarazi ere bezeroa zein helbidetan ibili den sarean eta zein zerbitzutara jo duen. Horretaz gain, kontrol tekniko prebentiboak ezarri daitezke, zenbaki batzuetara deitzeko edo web orrialde batzuetara sartzeko aukerak mugatuz. Kontrol-sistema horiek dirua balio dute, eta askotan, garestiago ateratzen dira langileek erabilera pribaturako egiten dituzten deiak eta horrelakoak baino.

Pablo Ruiz de Gordejuela **Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren** **sailburuordea**

Langileek euren laneko jardunean dituzten eskubide eta beharrak Langileen Estatutuak arautzen ditu oro har. Funtzionarioei dagokienean, araudi berezia dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea EAEn; noski, Konstituzioak aitortutako norbanako-eskubideei ez die ezer kentzen lege horrek.

Argi dago teknologiaren bilakaerak zenbait gaitan benetako kasu berriak sortzen dituela, esaterako pribatutasunekoan, eta kasu horiek jaso gabe daudela gaur egun indarrean diren lege-testuetan. Arazo berri horiek konpontzeko jurisdikzio bidera jo beharra izaten da.

Oraingoz ez dugu beren-beregiko araudirik Euskal Funtzio Publikoko telekomunikazioetako tresnen erabilerari begirakorik. Beraz, sor daitezkeen kasu berriak zentzurik egokienean ulertzeko, kontuan izatekotzat jotzen dira konstituzioz eskubide den komunikazioetako intimitatea eta EFPLren 73. artikuluan jasotako beharrak, batez ere f) paragrafokoak, “beren egitekoak direla eta, ezagutu ditzaketen gaiak doakien neurrian isilpean gordetzea”, eta h) paragrafokoak, “ezarrita dauden lanorduek eta ordutegia zorrotz betetzea”.

Jon Bilbao **Confebaskeko Lan** **Harremanetarako** **zuzendaria**

Oraingoz arazo puntualak besterik sortu ez diren arren, guk dagoeneko doktrina antzeko bat presatatu dugu enpresetan banatzeko. Zalantza hauek guztiak konbenio hitzarmenen bitartez zehazten, argitzen joango dira seguru asko. Dagoeneko hasi dira batzuk horrelako puntuak sartzen, baina oraindik oso gutxi dira. Guk hiru arazo zehaztu ditugu:

Alde batetik, langilearen datu pertsonalen bilketa. Gure ordenagailua denbora guztian informazioa biltzen ari da. Konturatu orduko, informazio asko biltzen da, eta enpresei ematen diegun aholkua hauxe da: behar ez duten informazio hori guztia ezabatu dezatela, datu horien erabilpenerako barneko kode bat sor dezatela, eta datu horiek maneiatzeko pertsona bat izendatu dezatela.

Bigarren arazoa enpresariaren lan-tresnak erabiltzean datza. Kasu honetan bi kontraesan daude: batetik, Langileen Estatutua daukagu (20.2 artikulua); enpresariak langilearen jardunean duen kontrola ezartzen da hor. Bestetik, Espainiako Konstituzioan jasota dauden Oinarrizko Eskubideak ditugu; Auzitegi Konstituzionalak esaten du eskubide hauek mugatzen dutela Estatutuaren gaitasuna; hau da, enpresariaren kontrolak muga batzuk dituela. Horri dagokionez, argibide batzuk ematen ditu Confebaskek:

- Ez kontrolatu, aldez aurretik abisua eman gabe. Egingo dituzten mugimendu guztiak erregistratuta geldituko direla esan behar zaie langileei.
- Jokabide arau bat ipini behar da; hasieratik gauza batzuk debekatu daitezke, Internetetik baimenik gabe materiala jaistea, esate baterako.
- Ahal bada, hori guztia zehaztu langilearen hitzarmenean, edota kontsultatu langileen ordezkariekin.



Aitor Bengoetxea **EHUko Lan eta Gizarte** **Segurantzaren** **Zuzenbideko irakaslea**

Enpresak baliabide informatiko berriak jartzen ditu; ondorioz, langileak baliabide horiek eremu pribatuan erabiltzeko arriskua sortzen da. Langileak hori egiten badu, printzipioz fede ona urratzen du zentzu teknikoan: lan kontratuak langilea fede onez aritzera behartzen du. Fede

hori urratzeak langilea kaleratzera eramanez dezake. Arazoa da fede ona oso kontzeptu malgua dela, fede ona non hasten den eta non amaitzen den argi ez dagoelako. Fede ona urratu den ala ez jakiteko, epaile batek honako iturriak ditu eskuartean:

- Legeak zer dioen begiratzea: legeak fede onez lan egin behar dela besterik ez du aipatzen, eta kaleratzera hel gaitzkeela esaten du.
- Hitzarmen kolektiboa: hitzarmen kolektiboaren funtzioa urrapenak eta zehapenak zehaztea, eta larritasunaren araberako mailaketa bat egitea da.
- Lan kontratua: hemen zehaztu behar da posta elektronikoa, internet edota sakeleko telefonoaren erabileraren mugak zein diren.
- Enpresaren irizpidea: enpresak jakinarazi behar dio langileari mugak non dauden.

Enpresak langilearen lana kontrolatzeko eskubide orokorra dauka. Kontrol horren muga langilearen edota herritarren intimitate eskubidea da (Konstituzioan agertzen da). Hor oreka bilatu behar da: kontrolatu bai, baina intimitatea erasotu gabe. Kasu batzuetan intimitatea bigarren mailan gelditzen da, baliabide informatiko horiek ez baitira langilearenak. Kasu honetan kontrol eskubide horri nagusitasuna eman behar zaio. Egokiena da enpresak langileari jakinaraztea kontrolatuta dagoela haien lana. Susmo serioa dagoen kasuetan, legezkoa izango litzateke langilearen lana kontrolatzea, langileari jakinarazi gabe.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Euskadi eta informazio-gizartea

Informazio-gizartea: goitik beherako aldaketa

Gizarte-eredu berri bat ari da sortzen, mundu zabalean, informazio- eta komunikazio-teknologia berriak gure bizimodu eta harreman-bideetan eragiten ari diren aldaketa sakonen ondorioz. Lanabesak eta tresnak erabiltzen asmatu genuenean, lehen nekazari-gizarteak sortu ziren; makinek eta energiak industria-gizartea ekarri zuten; eta, horrelaxe, teknologia berriek informazio-gizarterantz garamatzate. Terminoak berak, “informazio-gizarte” horrek alegia, argi erakusten du zein den eraldaketa-prozesu horren mamia: informazioa, digitu erako informazioa. Makinek “bit-ak”, “batekoak eta zeroak” erabiltzen eta baliatzen dituzte, eta azkar oso, hain azkar ezen denbora eta espazioa ez baitira –historian lehenengo aldiz– inolako oztopo, ia, elkar komunikatzeko eta harremanetarako.

Errealitate berri horretan –ezauzgarri nagusiak aipatzearen–, lehen baino eskuragarriago dago dena, konexioak errazagoak dira eta elkar jarduna da nagusi (Internetek berebiziko zeregina du). Erronka ederra, gerora begira egon gabe heldu beharrekoa, bai aldaketak izugarrikoak direlako gizartean, ekonomian eta gu denon eguneroko bizimoduan, bai aldaketa horiek abiada bizian datozelako (nekazarien gizarteak milaka urte eman zituen mundura zabaltzen, eta industria-gizartea horretan dabil azken mendetan, baina informazio-gizarteak baliteke hamarkada batzuk behar izatea garatzeko).

Denon lana da, bai herritarrena bai gizarteko eragileena –nork bereari erantzunez eta nork ahal duena eginez– aldaketa-prozesu horri aurre egitea. Eusko Jaurlaritzak, horregatik, politika aurrerazalea dakar plazara, gizarteak zabalik



izango duena, dinamikoa aurrera eramateko orduan, eta hiru oinarri gainean eraikia: Europan, ikerketen eta teknologiaren alorrean, Euskadi erreferente bihurtzea; antolaketa oro kudeatzeko orduan Erabateko Kalitatea lortu beharra zabalzea printzipio modura; eta, hirugarrenik, informazio- eta ezaguera-gizartea eraikitzea.

“Euskadi informazio-gizartean” izeneko plana (www.euskadi.net)

“Euskal gizartea aro digital berrira egokitzea, aldaketa kulturala erraztuz eta teknologia berriak pertsona guztien eskura jarritz, bizitza kalitate hobea eta oreka sozial handiagoa lortzeko eta gure ekonomiarri balioa eman eta hartan aberastasuna sortzeko”, horra hor zertarako garatzen duen hirugarren oinarria “Euskadi Informazio Gizartean” izeneko planak, Eusko Jaurlaritzak onartuak, 2002ko otsailean.

Planak, horretarako, lan-eredu bat dauka, hainbat alderditan banaturik, eta alderdi horietan guztietan dauka zeregina: **era-**

biltzaileak datoz lehenengo, horiek erabiltzen eta sortzen baitituzte edukiak; **edukiak eta zerbitzuak** gero, sareari balioa eman eta teknologia berrien erabilera bultzatzen baitute; eta **kontestua**, erabiltzaileak edukietara eta zerbitzuetara sartzeko bidea zabaltzen baitu.

Eredu horretan, **erabiltzaileak herritarrak** gara, “euskal herritar bakoitza Internetera sartzeko eta Internet erabiltzeko moduan egongo da, hartarako gogoia, prestakuntza eta beharrezko tresnak izango baititu”; **enpresak** ere bagara eta “enpresa bakoitzak eta bide horri ekin nahi dion bakoitzak teknologia berriak behar bezala erabili ahal izateko beharrezko baliabide eta aukera guztiak izango ditu”, eta **administratioak** ere bagara, eta “administratioek teknologia berriak erabiliko dituzte, hartara, herritarrarengana hurbildu eta zabaltzeko eta kudeaketa-lana hobeto egiteko”.

Edukiak, berriz, honako gauza hauek dira: **Euskadi** zenbat eta nola agertzen den **sarean**: “mundua globalizaturik egonik, herrien nortasuna indartu egin behar da, eta, horregatik, euskal kultura indartu eta euskararen erabilera bultzatu egin behar da Interneten”; **e-prestakuntza**: “inguru digital berria bertan dugu, eta, orain, prestakuntza-prozesuak hartara egokitu behar, irakasle, ikasle zein herritarrei e-prestakuntza erabiltzeko gogoia piztu behar, hartarako aukera eman behar eta erakutsi egin behar”, **e-osasuna**: “teknologia berriak ezarri-



ta, errazago iritsi ahal izango gara osasun-zerbitzuetara, osasun-sistemak hobeto lan egingo du eta herritarrak lehen baino gehiago balioko du”; **eta edukien esparrua:** “Sareak kalitateko edukiak sortu eta zabaltzeko gai izan behar du, erabiltzaileen beharren arabera, horrela ikusiko dugu balio duen edo ez”.

Eta kontestua, azkenik, honako gauza hauek dira: **azpiegiturak:** “oinarri honen gainean daude informazio-gizarteko zerbitzuak; lehen helburua banda zabala euskal lurralde osora eramatea da”; **teknologia:** “gure gizartea digitalizatzeko bidea errazteko moduko ezaguerak sortu, zabaldu eta erabiltzeko” eta **araudia:** “inguru digital berri horretan, pribatua dena pribatua da, segurtasuna eta askatasuna, hiru gauza horiek behar dira eta oreka modukoren bat eman behar diete erakunde publikoek”.

Internetaren denontzat

Lehen ere esan dugu informazio-teknologia berriak eta komunikazioak elkarren arteko komunikazio-lekuak direla; eskatu, eman eta hartu, erosi eta saldu, banatu eta iritzia eman, eta momentuan bertan, nonahi egonik ere. Inguru berri horretara egokitzeak, aurrera egin behar, beldurrik gabe.

“Euskadi Informazio Gizartean” izeneko planak lortu nahi du herritar guztiek erabiltzea teknologia berriak, eta erabilera hori zabala izatea, horrela, digituen mundu horretan urraketarik gerta ez dadin, bazterrean geratzeko mehatxu berri hori hortxe baitute gure gizarteko talde jakin batzuek: nagusienek, lanik ez dutenek eta ikasketarik gabekoek. Horretarako, planak hainbat jardunbide du teknologia berri horiekiko interesa ernarazteko eta haien erabilera errazteko.

Lehen jardunbidean, komunikazio-programez gainera eta informazio-gizartearen berri emateko programez gainera (horra hor jardunaldiak, ikuskizunak, komunikabideetako kanpainak, autobus ibiltariak eta abar) 2002ko maiatzetik aurrera **IT-txartela** izeneko egitasmoa ere badugu, **informazio-teknologiak erabiltzen dituztenen egiaztatzaile modura.** Informazio-gizartean

bizi eta lan egite aldera teknologia horietan eduki beharreko gaitasunak egiaztatze sistemak bat antolatu nahi izan dugu egitasmo horren bidez. Sistema horren barruan, bada gaitasun horiek egiaztatze erakunde bat, Software Institutu Europarra izenekoa, azterketak egiteko zentro-sare bat institutu horrek egiaztatzen, eta bada gestioak egiteko beste zentro bat ere, azterketak zein zentrotan, zein egunetan eta zein ordutan egin eskatzeko.

Jarduteko bigarren bidean, teknologia berrien erabilera errazteko horretan, bi egitasmo azpimarratu behar. **Konekta Zaitetz** programak, aurtan (Internetera konektaturiko ekipo gehiago zabaltze-

ko da programa hori), lehen ekinaldian, 170.000 ordenagailu erosteko dirulaguntzak eman ditu. Bigarren ekinaldian, berriz, Internetera erraz-erraz sartzeko sistemak aurkitu eta homologatu, horixe lortu nahi da, hartara, mundu digital honetatik bazterturik geratzeko arriskua duten taldeek ordenagailuak

direla-eta Internetera konektatzeko dituzten oztopoak gaitzearren (zenbat balio duten eta erabiltzeko zein zailak diren). **KZ gunea** programak, hau da, Interneten alfabetatzeko eta Internet erabiltzeko udal-zentroyen sareak –eta 2002ko ekainaren 30az ari gara hitz egiten– 65 zentro ditu lanean –gogoan izan helburua zela urte bukaerarako 100 zentro jartzea martxan–, eta 16.000 lagun baino gehiago


izan dituzte Interneteren ingurukoak ikasten.

Gaur arte martxan jarri ditugun politika publikoei esker, gure gizarteak badaki Internet luzerako kontua dela eta eskaintzen dizkigun aukerak erabili egin behar ditugula. Bada datu bat hori garbi erakusten duena: Baliabideen Azterketa Orokorren arabera, autonomia erkidego guztien artean, 1999an Euskadi 8. lekuan zegoen (%6.5ak zerabilen, orduan, Internet etxean), eta 2002. urtean, berriz, 1. lekuan dago (2002ko maiatzean, %29.3koa zen erabiltzaileen kopurua).

Ondorioz

Gaur, Euskadik, hitzordu atzeraezina du informazio-gizartearekin. Etorkizun hori denon artean eraiki behar dugu, egunero-egunero, gizarte osoak lagundurik. Etorkizun horrek, egia bihurtuko bada, gure sormenaren beharra du, eta teknologien gizarteratzearen beharra ere bai, giza legeak gobernatuko badu, Eudald Carbonell paleantropologoak zioen modura.

Alvaro Salazar
Eusko Jaurlaritzako teknikaria






Udalbarri Elorriko udal aldizkaria kalean da

Elorriko Udalaren ekimenez kalean da dagoeneko *Udalbarri* aldizkaria. Aldizkari honen asmoa da udal jarduerak eta herrian gertatutakoak etxe guztietara zabaltzea. Urtean lau aldiz aterako da (bi hilabete eta erditik behin) eta 2.500 ale banatuko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatziko bada ere, euskarari eman-go zaio lehentasuna eta Elorriko euskarari dagokion bizkaiera batua erabiliko da aipu eta elkarrizketetan.



Historia de la literatura vasca

Lopez Gaseni, Manu
SM, 2002
140 or.

Manu Lopez Gaseni euskal literaturako irakaslea da EHUren Gasteizko campusean. *Historia de la literatura vasca* dibulgazio liburua da eta euskal literaturaren historia modu trinko, argi eta laburrean azaltzen digu.

Liburuaren helburu nagusia da maisu-maistrei euskal literaturari buruzko oinarriak jakinaraztea, hauek haur eta lehen hezkuntzan erabil ditzaten.

Liburuak sei kapitulu ditu: lehenengo kapituluan herri literaturaren berri ematen da, eta ondorengo bost kapituluetan XVI. mendean hasi eta XX. mendera arteko ibilbidea egiten du.



Freexkue lokuzio bilduma

Zazpiak Batman kolektiboak *Freexkue* lokuzio bilduma berria argitaratu du. Bilduma honen asmoa zein den garbi dago: Euskal Herri osoko euskaldun guztiek ulertzeko moduko argot bat garatzea. Horretarako, zenbait euskalkitatik ateratako hitzak argot nazionalera pasatu dituzte, beti ere, honako baldintzen arabera: nazionala izatea, euskaldun artean ulertu ahal izatea, ahal izanez gero belarrira ondo jotzea eta fonetikoki polita edo adierazgarria izatea.

Hori guztia umorearekin uztartuta egin dute eta gazteriari gehien interesatzen zaizkion gaiak erabilia: sexua, drogak, musika...



La comunicación en el trabajo

Tailor, Judith
Gedisa
Barcelona, 2002
125.or

Komunikazioa da liburuaren ardatza, eta, bereziki, lantokietako komunikazioa. Azken urteotan teknologiak aurrera egin du etengabe; hori dela-eta, aldaketa handiak gertatu dira bai komunikazioan bai gure bizimoduan.

Komunikazio ona lortzeko gaitasun batzuk ikasi eta jorratu behar dira, eta hain zuzen ere, horiek dira liburu honen asmoak: lanean hasi berri denari komunikabideak behar bezala erabiltzen irakastea, teknologia administratiboaren abantailez baliatzeko eta arriskuei aurre egiteko. Horretarako, bulego moderno batean izaten diren komunikazio mota guztiak (telefono bidezkoak, idatzia, aurrez aurrekoa, telematikoa...) aztertzen ditu egileak.



Psikopatologiako hiztegia

Erkizia Amilibia, Blas
Tokirik gabe, 2002
432 or.

Hiztegi honen egilearen esanetan, lan hau bere buruarekin zeukan aspaldiko zorra da. Hiztegi potolo honek euskarak arlo honetan daukan hutsunea betetzeaz bat, medikuntza ikasten edota medikuntzan lanean ari den orori baliagarri egingo zaio, bere eguneroko jardunean euskara normaltasunez erabili ahal izateko.

Lege zaharreko “odol-garbitasunaren” nahasteak

Aski ezaguna da, gutxi aipatua den arren, gure herrian lauhun urtetan zehar, foru-erresumaren indarpean, hots, lege zaharren mendean, garatu zen “odol-garbitasunaren araua”.

Arau horren indarrez, herritartasuna ukatu zitzairen eta, azkenean, Gipuzkoa-Bizkaitan bederen, debekatu egin zitzairen bizitzea judu, mairu, ijito eta agote kastakoei eta, orobat, “odol nahastuko” kristau berriei.

Espainiako monarkia osoaren baitan herritarren askatasunaren oinarria kaparetasuna zenean, euskaldunen “kaparetasun orokorra” gordetzea zuen helburu odol-garbitasunak eta, ondorioz, gero eta gogorrago betearazi zuten euskal herrietako Batzarrek legeria arrazista hori. Euskaldunak “garbienak” ginela, ez erromatarrek ez mairuk menperatu gabeak eta odol garbi-garbikoak, izan baita gure arbasoen askatasunen eta are ohorearen ere zutabe sendoa bostehun urtetan barrena.

Politika horrek, baina, hainbat eta hainbat pertsonari bidegabekeria eta sufrimendu kontu ezinezko eragiteaz gain, gorabehera ez gutxi sortu izan ditu. Horietako bat aipatuko dut gaurko lantxo honetan.

Kontua da 1528an Gipuzkoako Batzarrak, norbaiten salaketaren baten ondorioz, ziur aski, Pasai-Donibanen (“en el Pasaje de Fuenterrabia” diote paper zaharrok) bizi zen Pedro Gebarakoa juduak probintzia utz zezala agindu zuen; bera eta baita bere seme-alabek eta iloba batek ere. Oinarrian, Gaztelako Errege-erreginen agindu zenbait eta Batzarraren beraren hainbat akordio.

Beste askotan ez bezala, ez zen makurtu, baina, Pedro Gebarakoa: auzitara jo zuen eta Valladolideko Auzitegian (“Real Audiencia y Chancillería” gaztelaniaz) amaitu zen kontua, berau baitzen Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako auzietarako goi-azitegia.

Auzi-paperetan bi arrazoi ematen ditu Pedro Gebarakoak. Lehenik, bera ez zela Gipuzkoako herritar, Pasaian bizita ere, Nafarroako baizik eta, beraz, nafartzat hartu beharko luketela gipuzkoarrek. Bigarren arrazoia, berriz, seme-alabei eta ilobari dagokie: “gipuzkoar andre kapareen” seme-alaba zirela eta, beraz, bazutela Gipuzkoan egoteko eskubidea.

Horra hor, ongi laburtuta, odol-garbitasunaren bi ikusmolde kontrajarri: “kristau zahar”-ena eta juduena. Jakina baita judu-tradizioan judutasuna amaren belaunetik datorrela, ez aitarenetik (horrela dio Moisesen legeak eta horrelaxe gaur eguneko Israel estatuko legeak ere) Horrela, Gipuzkoako Batzarrarentzako judu zirenak, gizon judu baten seme-alabak, juduentzako ez, ama ez baitzuten judua.


Ez dakit nola bukatu zen auzi hau, baina ez da zail imaginatzen mendez mende zer nolako nortasun-gatazkak, nolako leialtasun zatituak sortu zitzakeen lege bikoitz horrek. Gure herrietako paper zaharretan horrelako franko agertzen bide da, legelari eta eskribauen hizkera hotz eta formalean, gizon-emakumeen bihotz urratuak, bizitza hondatuak, trajedia pertsonalak. Badugu, guk ere, zergatik barkazioa eskatu.



Eneko Oregi

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua

Hitz gurutzatuak



EZKER ESQUIN

1. Asiako estatua. 2. Joan den urtean. Sartzeko nahiz irteteko. 3. Zuhaitz mota. Irin egosiz egiten den jateko ore. 4. Interjekzioa. Sagarroia, kirikinoa. 5. Kontsonantea. Arabako udalerria eta harana. Bat. 6. Behatokia. Musika nota. 7. Oinarrizko edaria. Emakume zaharra. 8. Igarobide. Iparraldean, soto. 9. Gezi txiki.

GOITIK BEHERA

1. Alaitu. 2. Hiru. Jardun. 3. Behar, egiteko. Emea gurasoekiko. 4. Beldurtia, ikaratia. Itsasoa adierazteko aurrizkia. 5. Boroaren sinbolo kimikoa. Arabako herria, Asparren udalerrian. Potasioaren sinbolo kimikoa. 6. Kasik. Alegiazko izaki. 7. Mendiko atea. Santu, saindu. 8. Euskal Herriko Unibertsitatea. Ozta. 9. Trebea.

Letra zopa



LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan zortzi barazkiren izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Iikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 948/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 948/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54

Soluzioak

Tomatea, tipula, perrexila, azalorea, azenarioa, piperra, porrua, harra.

Letra zopa

9. Iaiota.
Arata. 6. Talata. Do. 7. Ataka. San. 8. EHU. Doi.
1. Pozta. 2. III. Ait. 3. Lan. Ahaba. 4. Izuta. Iz. 5. B.
Goitik behera:

9. Azkon.
5. Z. Aitara. 6. Talata. Do. 7. Ura. Aitsoa. 8. Ibi. Xai.
1. Libia. 2. Iaz. Ate. 3. Pina. Ahi. 4. Oii. Tarkua.
Ezker eskuin:

Hitz gurutzatuak

HAU DA HAU BIZITZA!



Hori da zure jarrera
inoren arazoan
aurrean?



*Zeuregan dago jarrera hori positibo
bihurtzea.*

Gizarteak zenbat eta odolemaile gehiago
izan, hainbat eta konpromiso- eta antizipazio-
ahalmen handiagoa erakusten du, bere arazoak
konpontzeko.

Hau da hau bizitza!
Odola ematea bizitza da.

*Egin zaitez
odolemaile!*



Transfusio eta Ehuari Gizon Euskal Zentrua
Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos

aurrerera doan
herria



HERRIKO
GOBERNATZAILEAREN
ZERBITZUA

ZUZENBIDE PUBLIKOARI BURUZKO IV. JARDUNALDIA

(Euskaraz)

• **Hizlariak (EHUko irakasleak):**

Xabier Arzoz Sasntisteban
Luis Elizegi Mendizabal
Silvia Sarasola Gorriti
Iñigo Urrutia Libarona

• **Tokia:**

Eusko Jaurlaritza (Areto Nagusia).
Gran Vía, 85. Bilbo

• **Eguna:**

2002ko urriaren 25 (ostirala)

• **Orduak:**

09:15 / 14:30

• **Eskabideak:**

Europar Ikerketen Taldea
(5223 Postakutxa. 48009 Bilbo)

• **Argibideak:**

945 017667– 945 017600 / www.ivap.org

• **Antolatzailea:**

Europar Ikerketen Taldea

• **Babeslea:**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

